

aikor!

txorierriko aldizkaria



**Josu Loroñoren akordeoia,
inoiz baino biziago
41 urteren ostean**

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarleen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikotxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobieta, Maripi Agirre, Iñigo
Gaztelu, Jabi Agirre, AEK-ko
Txepetxa euskaltegiko uda taldea,
Jasone Astola, Iñaki Astorkiza, Sabin
Arana, Beñat Aiertza, Beitu aldizkaria,
Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiertza

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Eusko Jaureritza



Euzko Foru
Aldundia
Kultura Sektorea

diruz lagundutako aldizkaria



11 Txapelpunk



14 Goiherri sokatira taldea



24 Jostunak, arropa konpontzeko denda



22 Juan Carlos Alonso psikologoa



13 Izarne Agirre



26 Loiuko Euskal Kultur Elkartea

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Kultura 11Gurean
izan da... Txapelpunk 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Izarne Agirre
14Goiherri sokatira taldea 16Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa
20Ameriketara joan nintzen 22Juan Carlos Alonso psikologoa
24Jostunak, arropa konpontzeko denda 26Loiuko Euskal Kultur
Elkartea 28Josefina 29Teknologia 30Txorierrri ezagutu
31Txorierritarrak munduan 32Sukaldaritza 33Denbora pasa
34Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu,
hemen dozu erea:**

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Eta guk zer?



Jasone Astola Elorriaga
(Irakaslea)

Noizbehinka –baina noizbehinka besterik ez– Hirugarren Munduko egoerari buruz hitz egitea modan jartzen da. Pasatzen duten goseaz, pairatzen dituzten gaixotasunei buruz, ekonomia talde indartsuek bultzatutako gerretan hiltzen direnez, bortxaketek, desplazatuek, zapalkuntzek... Zailagoa izaten da kalamidade hauen sakoneko arrazoiei buruzko hausnarketa egitea, informazio hori lortzea ez delako erraza. Egia esan, ezin izango ginatke lasai bizi egoera honetan, serio pentsatuko bagenu eta kontsekuenteak izango bagina.

Aitortu behar da, egoera hauek ez ditugula bakarkako ekintzekin konponduko, arazo handiegia baitira. Gobernu kanpoko erakundeek (GKE) ere arazoaren parte txiki bati baino ezin diote heldu. Honen aurrean sarri entzuten dugu “Hori agintariek konpon dezatela”. Arrazoi badu hau esaten duenak, Banku Mundialak adibidez edo “Zazpi handiek” edo Komertzioaren Organizazio Mundialak hartutako erabaki bidezko batek asko konponduko lukeelako. Gure interesak, hau da, lehenengo munduan bizi garenon interesak defendatu beharrean, erakunde hauek, justuagoak, zuzenagoak balira, urte gutxitan arazoa

konponduta legoke. Baina guk ere zerbait egin ahal dugu eta egin behar dugu. Egoera mundialaren ondorioak, guztion kalterako direlako eta izango direlako: pobrezia hedapena, kontrolik gabeko migrazioak, bidegabekeriak inpunitate osoz, basoen eta itsasoen hondamendia, baliabide naturalen ustiapen basatia eta ondorioz kultura indigena guztien desagertapena...

Ahalegin handiegirik gabe, badira egin daitezkeen hainbat kontu:

- 1.- Merkataritza justuko dendetara joan. Batzuetan gauzak pixka bat garestiagoak dira, baina ziurtatzen duguna hau da: ez dira haurren lanaz baliatu produktua ateratzeko, langileek bidezko soldata hartzen dute eta bitartekariak ez dira besteen lepotik aberasten. Oro har, produktu naturalak dira eta ingurugiroarekiko errespetuz sortutakoak.
- 2.- Ez erosi umeen eskulana erabili dutelako salatuta dauden marken produkturik.
- 3.- Eman erabiltzen ez dituzun jostailuak, tresnak, arropak eta abar hartzen dituzten taldeei, beste pertsona batzuek eskertu egingo dute.

4.- Izan gaitezen arduratsuak kontsumoan. Baliabide naturalak alferrik ez galtzeaz gain besteekin solidarioagoak izango gara. Errekurtso naturalen ustiapena da gerra eta zapalkuntza askoren azpian dagoen arrazoi.

5.- Parte hartu GKEren batean, denbora, dirua, ideiak edo bururatzen zaizun beste edozer eskainiz.

6.- Seme-alabak elkertasunean hezi, baina kontuan izan umeek ez dutela ikasten esaten duguna, egiten duguna baizik.

Apur bat pentsatuz gero, baietz beste hainbeste ideia edo gehiago eta hobeak atera; bada, bide horri ekitera animatzen zaituztegu Behar Bidasoa GKEtik.

Mizketuak



Belen Gana
(Irakaslea)

Miseria baino mizkeria hobe dala dio osaba Nikolasek. Gure amak oster, miseria apur bat ikusten dauenak, daukana hobeto baloratzen dauela dino.

Filosofia ulergarri bi horiek askotan eztabaidagai izan doguz etxean eta, atrebentzia handia ez bada, eritxi artikuluhonetan hausnarketa txiki bat egitera nator.

Gure umeek nahi beste jostailu daukie; besteak baino gutxiago izan ez daitezkan markako arropa eta oinetakoekaz jantziten doguz; estraeskolarragaz beterik dagoz eta etxeko lanak egiteko partikularak hartzen dabez, gainera. Poltsikoan ez daukie diru faltarik, baina askotan, zer egin ezean ikusiko doguz herri bazterretako eskaileretan jarrita. Hona hemen amaren arrazoiak ulertzeko adibidea.

Osabaren arrazoiak ikusteko galdera batez azalduko gura dot: Zenbat bider egiten dogu berba geure seme-alabekaz, gugandik gertu beste ume batek ez dituela gure aukera berdina izango esateko, akaso berak jolasten duen baloia edota dekozen plaiarak beste ume batzuek eginekoak direla azaltzeko? Eskolara joan beharrean etxerako dirua lortzeko lan egin behar dutela esplikatzeko? Geuk Forumen 100euro ordaintzen doguzenean, eurei 10 zentimo ordaintzen zaiela esateko? Eta hori baino txarrago: gosez eta egarritz hiltzen direnei buruz zenbatetan egiten dugu hausnarketa?

Errealitateak asko irakasten du eta esaera guztiak daukie bere arrazoiak.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Errepideak eta infrastrukturak

Korridorea diseinatu zutenek, zorioneko korridorea, heriotzarako tranpak diseinatu dituztela esan daiteke. Orain 6 hilabete pertsona bat hil zen Artolako errotondan. Erletxetako bidegurutzean 5 hildako egon dira denbora laburrean. Ia egunero dago Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko sarrera-irteeretan istripuren bat. Batzuek diote garapenaren prezioa dela hori. Beste batzuek diote gidarien errua dela. Baina istripuetan argiketa-lanak egiten ibiltzen diren ertzainek diote bururaino daudela agintariak arriskuaz jabeazten. Zer da, ba, gertatzen dena? Garrantzitsuen obrak inauguratzea da, zeharka agertu daitezkeen arazoei erreparatu bari, egon daitezkeen istripuak eta hildakoak hala gertatu behar direla pentsatuz? Obrak inauguratu dituzten politikariak eta arduradunak errugabe sentitzen dira? Beharbada legeren bat asmatu beharko da, politikariak obra bat egin eta herritarrek kalteak direnean. Herritarrek gara obrak eta politikarien neurribako soldatak ordaintzen ditugunok.

Larrabetzuko saihesbidearen obrak egiten ari dira, abiadura handiko errepideak, justifikaziorik ez daukana bertatik ibiliko den kotxe kopurua kontuan hartzen bada. Errepide horrek autoak abiadura handiagoan ibiltzeko aukera emango du. Hori da egingo duen gauza bakarra. Ez dira kontuan hartu bestelako proposamenak, merkeagoak eta kalte txikiagoa egingo luketenak. Egon daitezkeen istripuen kopurua ere kalkulatu izango dute. Bitartean saihesbideak hektarea partida utziko du hondatuta, eta atzera bueltarik ez duen txikizioa egingo da ingurumenean. Eta Udaletik "Agenda21" deritzona aurkeztu digute. Marketina baino ez da. Eduki bako propaganda. Agintariak, alkatea eta ahaldu nagusia harro etorriko dira inauguraziora. Otarduy eta bere lagunak, dirua dariola, pozez gainezka ikusiko ditugu.

Iñigo Gaztelu



Korridorea eginda, noizko hobekuntzak errepide nagusian?

Datorren abenduan urtebete izango da Txorierriko korridorea Erletxetaraino zabaldu zutenetik. Gauza asko prometatuta zizkiten aurretik: trafikoa eta arriskua herritik aldentzeko zirela eta abar.

Baina denbora aurrera doa eta prometatutakoa ez da inondik agertzen. Lezamako erdigunetik trafikoa kopurua jaitsi da, jakina, baina ez esan zuten neurrian. Eta arriskua lehengo besteakoa edo handiagoa da, orain autoak eta kamioiak abiadura handiagoz pasa daitezkeelako.

Tamalgaria iruditzen zait, hamar hilabete pasa ondoren, errepide nagusian oraindik inolako neurririk hartu ez izana. Ez errotondarik, ez badenik, ez espaloiak zabaltu, ez errepidea estutu, ezta kamioiei pasoa debekatu ere.

Ekimen horiek guztiak teknikoki errazak eta ekonomikoki merkeak dira, Foru Aldundiarekin adostu besterik ez da egin behar. Eta, nik dakidanez, Foru Aldundia prest dago horretarako. Lezamako Udalak zergatik ez du ezer ere egiten?

Korridorea inposatu ziguten eta jadanik 50.000 ibilgailuk zikinkeriaz eta zarataz betetzen dute gure bailara egunero. Milaka kamioik —askok merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzte— burunbatzen dute Aretxalde aldetik... Baina horren ordainez erdigunea ez dugu apenas hobetu. Noiz arte?

Txema Pico Lete

Gotzaindegiak oraingoz ez du Larrabetzuko gazte-txea behera botako

Bizkaiko Foru Aldundiak baimena eman arren, Gotzaindegiak Larrabetzuko Hori Bai gaztetxekoei jakinarazi die oraingoz ez duela eraikina behera botatzeko asmorik. Beste alde batetik, aditzera eman die laster dei egingo diela bilera bat egin eta egoitzaren etorkizunari buruz hitz egiteko.

Hori Baikoek Aikor! aldizkariari azaldu diotenaren arabera, herritarrek egindako presioaren ondorioz, Gotzaindegiak beste jokaera bat hartu du, antza denez. *“Nahiz eta euren esan mobilizazioek ez dutela eraginik izan, hasiera baten eraikina euren zelako botako zutela esan zuten, baina manifestazioak egin ondoren gaia berriro aztertuko dutela iragarri digute”*. Edozelan ere, aipatu digute jabetza ez dagoela batera argi. *“Jabetza-erregistroan ez dago doku-menturik. Elizak 1931n erosi zuen lokala, eta 1965ean abadeak Hori Bai-ri utzi zion. Eta hemen 30 urte baino gehiago egoteak eskubide batzuk ematen dizkigu”*. Dena dela, Gotzaindegiak hartzen duen erabakia edozein izanik ere, orain arte bezala lokala defenditzen eta ekintzak antolatzen jarraituko dutela jakinarazi dute.

Hori Baikoek Udalaren jarrera ere kritikatu dute. *“Eskuak garbitu dituzte, baimena ematera derrigortuta egon direla esanez”*. Eraikinaren katalogazioa aldatzeak ere susmo txarra sortu du gazteengan. *“Etxea herriko alde historikoaren barruan dago, eta horregatik arau batzuek babesten dute. Behin-behineko borradorean eraikinaren fatxada bat babestu behar zela agertzen zen, hala ere, behin betiko dokumentuan “elementu diskordante” moduan katalogatzen*

dute. Ondorioz, obraren bat eginez gero, kendu daiteke”. Gazteen esanetan, txostena idatzi zuen teknikariarengana jo zuten, eta hark hala egiteko eskatu zitzaiola azaldu zien. Gainera, lokala erabiltzen zutela jakin balu, ez zuela hala katalogatuko esan zien.

Beste alde batetik, salatu dute bazekite- la Gotzaindegiak eraikina behera botatzeko eskaria egin zuela, baina azken momentura arte ez dutela jakin prozesua aurrera zihola. *“Aste Santuan dekretu bat eskegi zuten atean, eta bertan adierazten zen lokalean berritze lanak egin behar zirela, baina, hura alde batera utzita, inork ez digu ezer ere esan prozesuari buruz. Udalaren eta Gotzaindegiaren arteko idatzizko harremanen kopiak eskatu ondoren, eskuratu dugu informazioa”*. Gaineratu dute irailaren 3an etxeak behera botatzeaz arduratzen den enpresa bateko langile bat lokal barruan topa ondoren jakin zutela Gotzaindegiak eraikina behera botatzeko aurrekontua eskatu zuela. *“Hurrengo astelehenean Udaletxera joan, eta Gotzaindegiak botatze-ko baimena lortu zuela esan zigun alkateak”*.

Udalak legea bete duela dio

Aikor! aldizkariak Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkatearekin hitz egin du, eta Udalak ez duela gaztetxea botatzeko interesik azaldu digu. *“Hori Bai eta Gotzaindegiaren arteko arazoa da, eta euren artean konpondu behar dute. Guk legea bete baino ez dugu egin”*. Gotzaindegiak etxea botatzeko baimena eskatu, eta eraikina herriko alde historikoaren barruan dagonez, Foru Aldundira jo zuen Udalak, Bizkaiko Ondare



Historikoaren Legeak babestuta ote zegoen jakiteko. Diputazioak erantzun zuen *“elementu diskordantea”* zela, eta ondorioz, botatzeko aukera zegoela, *“eta guk halaxe jakinarazi diogu Gotzaindegiari”*. Ordeñanak oso argi utzi nahi izan du Udala ez dagoela gaztetxearen kontra. *“Guk ez dugu eraikina botako; hori Gotzaindegiak egingo du”*. Gainera, gogorarazi du lizentzia guztiak araututa daukela eta jabetza-eskubideei eta hirugarrenei ez badiete kalterik egiten, lizentziak eman egiten direla. *“Udalak ez dauka argumenturik Gotzaindegiari eraikina botatzeko eskubidea ukatzeko”*, azaldu digu alkateak. Gainera, azpimarratu du *“Hori Baikoek epaitegietara jotzeko aukera dute; baina Gotzaindegiaren kontra, eta ez Udalaren aurka, izan ere, botatzeko erabakia ez da gurea”*.

Zamudio Kamara Korala Alemanian izan da udan

Uztailaren 10etik 18ra bitartean Alemanian izan zen Zamudioko Kamara Korala, Pueri Cantores elkarteak gonbidatuta. Bertan, nazioarteko festibalean parte hartzeaz gainera, euskal musika eta abestiak munduko beste abesbatza batzuei ezaugarrazteko aukera izan zuten partaideek.

Horrela, bada, Italia, Polonia, Errusia, Friburgo eta Frantziako abesbatzarekin batera eman zituzten lau egun Frigurboko elizbarrutian. Handik Koloniara trenetaz abiatu eta bertan munduko 6.000 bat abeslari elkartu ziren, hainbat kontzertu eskainiz.

Iratxe Gezuraga Zamudio Kamara Koraleko sortzaile eta zuzendariaren esanetan, esperientzia guztiz baikorra izan da *"beste lurraldeetako abesbatzen lana eza-gutu ez ezik gizartean duten garrantzia mirestu ere egin dugu eta"*.

Zamudioko Kamara Korala Pueri Cantores elkartearen sartu zen 1991. urtean, eta ordutik hona hainbat nazioarteko jaialditan hartu du parte, euren artean Austria, Salzburgo eta Bartzelonan. Halaber, Lizarra, Astorga eta Oviedon kontzertuak eskaini dituzte.



Derioko Udalak eta EEEk hitzarmena sinatu dute

Derioko web orrialdean azaltzen denaren arabera, Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE/EVE) Lankidetzak Hitzarmena sinatu zuten uztailan, energiaren arazoizko erabilera eta energia berriztagarriak sustatzeko herrian.

Ekimen horren bidez, energia-jarduera batzuk bultzatzeko asmoa dago udal mailan. Horrela, bada, eta web orrialdean agertzen den bezala, eguzki-energia fotovoltaiakoaren alde egitea baliteke, Udaletxeko teilatuetan eta herri ikastetxeetan plaka fotovoltaiakoak jarritz. Horretara, energia berriztagarrien erabilera zabaltzea du helburu Udalak, baita datozen belaunaldiak kontzientziatzea ere.

Babes ofizialeko etxebizitzek 1.221 euro metro koadroko balio izango dute Txorierrin

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak abuztuan emandako aginduan azaltzen den bezala, Txorierrin eraikitzen diren babes ofizialeko etxebizitzetako gehieneko prezioa 1.221 eurokoa izango da metro koadro erabilgarriko.

Agindu horretan metro koadroko hiru prezio ezberdin ezarri dira babes ofizialeko etxebizitzentzat: 1.262 euro, 1.221 euro eta 1.103 euro, hain zuzen ere. Halaber, udalerriak hiru multzotan banatu, eta gehieneko prezio bana eman zaie. Erandio lehengo multzoan dago eta, ondorioz, 60 metro koadroko babes ofizialeko etxebizitza batek Txorierrin baino 2.460 euro gehiago balio izango du herri horretan.

Neurri horren bidez, etxebizitza-merkaturako operadore pribatuak nahiz administrazio publiko guztiak babes ofizialeko etxebizitzetako eraikuntzan inplikatzeko asmoa dauka Eusko Jaurlaritzak. Horrela, etxebizitzarako eskubidea ahalik eta euskal herritar gehientzat betetzen lagundu nahi dute.

Derioko Udalak 12.000 euroko laguntza eman dio Behar Bidasoa GKeri

Behar Bidasoa GKeren Lezamako taldeak urteak daramatza Kolonbiako Pereira hirian dagoen Garapen Gunean lanean. GKEk Ahizpa Pasiotarrei bidalitako dirulaguntzei esker eraiki da *Centro de Acogida y Capacitación para la Mujer* etxea. Etxe horretan aurrera eraman eta kudeatzen diren jarduerak hauek dira: emakumezkoen formaziorako diren bost tailer, ikastera doazen emakumezkoen seme-alabak zaintzeko haurtzaindegia eta ludoteka, aisialdirako jarduerak (dantza taldeak, musika, antzerkia, futbol taldea...), liburutegia, egunean 550 bazkari (umeak, amak eta aitite-amak) ematen dituen jantokia, familiekin lan egiteko egitasmo sozio-edukatiboa, unibertsitatera joateko dirulaguntza auzoko gazteei eta 100 umetik gora babesten dituen apadrinatze programa.

Proiektua aurrera atera dadin dirulaguntza gehiena Behar Bidasoak bidaltzen

du. Aurtengo dirulaguntzen artean Derioko Udalak 12.000 euroko laguntza eman du. Udalari, baita Deriotar guztiei ere, bihoakie laguntza hauen bitartez aurrera egiteko aukera duten guztien esker ona.



Golf-zelaia irailaren bukaeran irekiko da

Artxanda Golf Klubaren ordezkariak jakinarazi duten bezala, Larrabetzu eta Galdakaoren artean egiten dabiltzan golf-zelaia irailaren 30ean irekiko da ofizialki. Hala ere, 9 zulo dituen ibilbidean baino ezin izango da aritu momentuz, 18 zulotako zelaia ez baita datarren udara arte bukatuko. Azken ibilbide hori Galdakaoko lurretan egiten dabilta. Era berean, gainontzeko instalazioak, klub-etxea, aldagelak eta jatetxea, datozen hilabeteotan inauguratuko dira. Gaur egun, 975 bazkidek osatzen dute Golf kluba, eta zelai berriarekin 1.600 sozio izatea espero dute ordezkariak.

Txarribodei buruzko material bilketa Zamudion

Urtero lez, Zamudioko baserritarren azoka izango da azaroan, eta bertako txarribodei buruzko dokumentu idatziak, argazkiak, diapositibak eta beste edozein material biltzen dabil liburutegiaren arduraduna. Horrela, bada, egun horretarako erakusketa antolatze-ko asmoa dauka. Materiala urriaren 15era arte eraman daiteke liburutegira.

Eskualdeko Pilota Txapelketa laster hasiko da

Urriaren 15ean Eskualdeko pilota txapelketa hasiko da Lezaman, bertako Pilota Elkartek antolatuta. Partida guztiak ostiralero jokatu dira herriko frontoian, iluntzeko 8etan.

Mugikortasuna Txoriemín eztabaidagai Zamudioko Parke Teknologikoan

Irailaren 17an, Txoriemín Badao jardunaldiak izan ziren Zamudioko Parke Teknologikoan, udaltalde 21ek antolatuta. Bertan hainbat hizlari aritu ziren mugikortasunari buruz; haien artean, Miguel Angel Castilla Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saileko ordezkaria, Jesus Maria Erquiza Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko ordezkaria eta Iñaki Barcena Larrabetzuko Geroa elkarteko kidea izan ziren.

Jardunaldietan azaldutakoaren arabera, 16.000 auto ibiltzen dira egunero Txoriemín, eta %60 kanpotik etortzen da. Halaber, autoetatik %82 merkataritzagaien garraioak dira.

Hizlariak aipatu zuten bezala, lan eta egoitzaren arteko desoreka handia da

Txoriemín, eta garraio publikoa eskasa izateak industriguneetako langileak zein bertokoak norberaren ibilgailua hartzera behartzen gaitu eguneroko joan-etorriak egiteko. Ondorioz, mugikortasun arazoa ez ezik ingurugiro arazoak ere sortzen dira, besteak beste.

Arazo hauei guztiei aurre egiteko hainbat proposamen egin zituzten partehartzaileek. Horrela, bada, mentalitate aldaketa beharrezkotzat jo zuten, eta errepide gehiago egin beharrean, garraio publikoa indartzearen alde agertu ziren batzuk, eta autobusa, tranbia eta bizikleta proposatu ziren alternatiba moduan.

Beste alde batetik, Foru Aldundiak Lezamako bide zaharra berreskuratu eta Mungiaraino eramateko asmoa duela aipatu zuen Castillak.



Euskara ikasteko diru laguntzak emango ditu Mankomunitateak

Aurten, eta lehenengo aldiz, udal euskaltegitik kanpo euskara ikasten dabiltzan lagunei diru laguntza emango die Txoriemín Mankomunitateak. Eskaria egiteko epea urriaren 1etik 31ra arte izango da, eta Txoriemín erroldatuta dauden ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian. Dirulaguntza eskuratzeko, eskola orduen %90a betetzeaz gainera, ezin izango dute beste laguntzarik jaso eskatutako ikastaroagatik. Era berean, hasitako kurtsoa bukatu egin beharko dute. Argibide gehiago Txoriemín Mankomunitateko Euskera Zerbitzuan eta udaletxean.

Underground jaialdia Loian

Urriaren 2an, larunbata, Metal jaialdia izango da Loiu pilotalekuan Txoriemín eta inguruko musika taldeek eta Brownscream records disko-etxeak antolatuta. Iraina, Zuldar, Odd Heathenish, Suffering Down, Hindrance eta Impure taldeek eskainiko dute kontzertua bertan, iluntzeko 8etatik aurrera. Frontoiko ateak 19:30etan irekiko dituzte eta sarrerak 8 euro balio izango du. Era berean, txosna jarriko dela eta lehenengo edaria doanik izango dela aipatzekoa da. Halaber, diskoak, merchandising eta fantzinak egongo dira salgai.

Antolatzaileek Aikor! aldizkariari azaldu diotenaren arabera, 8.000 w-ko soinu-ekipoa eta 24.000 w-ko argiztapen-ekipoa erabiliko dira kontzertuetan. Horrezaz gainera, jaialdia grabatuko da, ondoren argitaratzeko asmoa dute eta.

Cadalsoren omenezko harlauza

1954ko irailaren 18an Zamudioko Kaltso baserriko armari azpian harlauza bat ipini eben, Jose Cadalso idazlearen omenez (Cadiz 1741-Gibraltar 1782).

Bilbotar talde bi izan ziran omenaldi horren buru, bata "Amigos del País" eta bestea "Biblioteca de las Buenas lecturas bilbaínas".

Ekintza horregaz Cadalso familiaren bizkaitar sustraiak finkatu nahi ebezan. Egun horretan hainbat jende bildu zan Kaltso inguruan, euron artean Daniel Lecanda hizlaria eta Jose Mari eta Concepción Oxangoiti Sagasti, azken horreek Cadalso leinuaren ordezkaritzat.

Bizkaitar sustraiak aurkitu eta horrela idatzi eban Javier de Ybarra y Bergek, famili horren genealogian 1564 urtera helduz.

Jose Cadalso Vizcarra, idazlearen aita, Zamudion bateatu zan 1710ean. Merkataritza lanetan ibilia Indietatik eta Europako hainbat herrialdeetatik (Copenhaguen hil zen). 1733an Cadizeko Josefa Vázquez Andraderekin ezkondu zan. Euren alaba, Maria Ignacia eta semea, Jose de Cadalso y Vázquez, idazlea.

Jose de Cadalsok, ikastetxe ospetsuetan ikasitakoa, hainbat hizkuntza ekiazan, (ingelesa, frantsesa, alemana, italiera). Jovellanosekin batera XVIII. mendeko idazle garratsitsua izan zen: "*Cartas marruecas*" ; "*Noches lúgubres*"...

Militarra ere izan zen Jose Cadalso idazlea. "Capitan del regimiento de Caballeria de Borbón"; "Caballero de la Orden de Santiago"(1766), eta Gibraltarren

hil baino hamabost egun lehenago "Coronel" kargua hartu eban.

Testua eta argazkia: Amagoia Guezuraga



3000 viejas fotos para la historia de Vizcaya liburuan bildutako antxinako argazkia.

Pedro García de Zaballa + **María Díaz de Cadalso**

Pedro García de Cadalso + Ana De Jarabeiti y Bolivar
(Zamudio, 12/07/1566) (Zamudio, 28/07/1565)

Pedro García de Cadalso y Jarabeitia + Marina de Burgoa y Isusquiza
(Zamudio, 22/04/1597) (Larrabetzu)

Iñigo Pérez de Cadalso y Burgoa + Ana Antonia De Uribarri-Alzaga y Asúa
(Erandioztarra)

Ignacio de Cadalso y Uribarri
(Zamudio 4/05/1655)

(1º) +Maria Antonia de Gallarza (Bilbokoa) (←honekin 4 seme alaba)

(2º) +**Magdalena de Vizcarra** (Sondita, 2/03/1708) (←honekin 8 seme alaba)
y Uribarri

Jose de Cadalso y Vizcarra + Josefa Vázquez y Andrade
(Zamudio, 2/06/1710) (Cádiz, 4/12/1709)

JOSE DE CADALSO y VÁZQUEZ
(Cádiz, 10/10/1741)

Datuak:Javier de Ibarra y Bergé. 1954

Iñiguito, Txapelpunkeko abeslaria

“Pirateoa? Nahiago dut gure diskoak bost pertsonak edukitzea, bik baino”

Etsaiak taldea desegin ondoren, Iñigo Arrasate beste musika proiektu batean sartu zen buru belarri: Txapelpunk taldea. Merkatuan disko bi –*Txapelpunk* (2000) eta *Bla, bla, bla, bla, bla. Stop* (2002) – dituzte eta orain hirugarrena kaleratzear daude. Duela gutxi, Iñiguito-eta ikusteko aukera izan genuen Lezamako jaietan.

Bigarren diskoa kaleratu zenutenetik hona, zertan ibili da Txapelpunk eta zertan dabil orain?

Kuban birritan izan ginen iaz: martxoan jotzera joan ginen, eta uztailan bertako Kultura Ministerioak gonbidatu gintuen Caiman Rock jaialdian parte hartzera. Orain topera gabilta kontzertuak ematen eta hirugarren diskoa prestatzen. Azaroaren 15erako kalean egotea nahi dugu. Eta hemendik urte eta erdira baliteke Mexiko eta Japoniara joatea.

Aurreko diskoari dagokionez, ia instrumentu guztiak zeuk grabatu behar izan zenituen estudioan. Zelan doa hirugarrena?

Lanez gainezka gabilta. Abesti bakoitzari hainbat bertsio egin, eta taldekideekin batera erabakitzen dut zein den onena. Oraingo honetan bakoitzak bere instrumentua grabatuko du... Eta, beno, ia-ia abesti guztiak ditugu grabatuta... Diskoa kaleratu ondoren, gogor ekingo diegu entseguetara, kontzertuak ematen hasteko.

Zer topatuko dugu hirugarren disko horretan?

Hamabost abesti izango dira: 6 euskaraz eta 9 gaztelaniaz. Letrak normalean neuk idazten ditut. Hala ere, kartzelan daukagun lagun batek ere egiten ditu batzuetan; libildiko abestia, esate baterako, berak idatzi zuen... Gure kantak kalean edo bizitzan ikusten dugunari buruzkoak dira.

Eta zergatik euskaraz eta gaztelaniaz?

Nahiz eta euskalduna izan, erraztasun handiagoa daukat gaztelaniaz idazteko, txikitik erdaraz ikasi bainuen, beharbada. Hala ere, badakit ez dela aitzakia, eta euskaraz gehiago idatzi ahalko nukeela... Batzuek leporatzen didate salmentei begira egiten dudala, baina ez da horrela. Gainera, euskara hutsean abesteak bidea errazten dizu hemen.

Zer aurkitzen dugu Txapelpunken kontzertu batean?

Euskal Herriko talderik motibatuenak garela ez dut esango, baina bai eszenatoki

gainean indar guztia ipintzen dugula. Guri berdin digu 4 edo 10.000 pertsona badaude: hor ibiliko gara jo eta ke... Izugarri sentitzen dugu geure musika, eta horrela helarazten diegu publikoari.

Beste alde batetik, estudioan gitarra eta ahotsa oso gustura grabatzen badituzte ere, eszenatoki gainean nahiago dut abestu, beste ezer jo barik; bestela, mugatuta ikusten dut neure burua. Horregatik, beste gitarra-jole bat hartzea pentsatu dut behin baino gehiagotan.

Hainbat urte daramatzazu musika munduan. Zelako bilakaera egon da zure ustez?

Talde asko agertu dira, askok fusioari ekin diote... Eta oso positiboa da, musika bizirik dagoela esan nahi duelako. Lan egiten jarraitzen animatu behar dugu jendea, lokalen asuntza nahiko txarto egon arren. Badakit merkatu honetan lekua izatea zaila dela, eta gazteek gaur hasi eta bihar goian egon nahi dutela. Baina hobbytzat hartu, entseguetan gogoz aritu eta disfrutatu egin behar da, gauzak berez ateratzen baitira azkenean.

Diskoetxeen jarrera?

Taldeen salmenten arabera jokatzeko dute, eta normala da, azken batean, enpresak direlako. Zortzi taldeetatik batek baino ez baditu salmenta onak izaten, ezin dute inbertsio handirik egin, gero ez dutelako dirurik berreskuratuko. Eta ondorioz, ahal duten neurrian enrollatzen dira. Horrez gainera, pirateoaren asuntza ere ez du askorik laguntzen...

Zer pentsatzen duzu horren inguruan?

Niri berdin dit, musikariok ez dugu dirurik lortzen salmentetatik. Baina, jakina, kalte egiten gaitu, diskoetxeek gudan diru gutxiago inbertitzen dutelako. Hala ere, zuzeneko emanaldietatik bizi gara, eta nahiago dut gure diskoak, bik baino, bost pertsonak edukitzean badituzte, gero kontzertuetara etorriko direlako. Gure musika ahalik eta lagun gehienei ailegatzea nahi dut, eta berdin zait Txapelpunken diskoak pirateatzen diren ala ez.



“Baliteke Etsaiak eszenatoki gainean ikustea berriro. Ez dakit noiz eta nola, baina baliteke”

Beno, eta zelako bilakaera izan duzu zuk?

Etsaiak taldean jende asko izaten ginen, bakoitzak bere gustuak zituen, eta gustu horiek guztiak kontuan hartu behar ziren, abestiak konposatzen zirenean. Orduan, egun baten atzera begiratu, eta neuk ere aldaketa batzuk izan nituela konturatu nintzen, baita urte hauek hainbat gauza ikaste-ko balio izan dutela ere.

Inoiz ikusiko dugu berriro Etsaiak eszenatoki baten gainean?

Batzuek bestelakorik esan arren, gure arteko hartu-emanak oso onak dira. Baina Etsaiak taldeari atsedena emateko ordua zen, eta bakoitzak bere proiektu pertsonalari ekin zion. Inoiz elkartzeko gara berriro? Baliteke. Ez dakit noiz eta nola, baina baliteke.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Eta zer pentsatzen duzu zuk?

Aurreko aldizkarian azaldu genuen bezala, Txepetxa euskaltegiko uda taldeak hainbat gai izan ditu eztabaidagai uztailean. Hona hemen hausnarketa horien emaitza batzuk:

Kirola

Derioko gazteontzat futboleko aritzea garesti izaten da, leku guztietan honelako kartelak jarri baitira: "Debekatuta dago pilotan aritzea".

Ondorioz, ez daukagu beste erremeriorik kiroldegira joatea baino, eta bertan aritzeko 7 euro ordaindu behar izaten da, bazkidea izanez gero; bazkideak ez direnek, berriz, 10 edo 12 euro abonatu behar dute. Gainera, hainbeste diru ordainduta, oso denbora gutxi ematen uzten digute.

Dena dela, goiko auzoan futbito zelai batzuk egin dituzte eta badirudi doakoak izango direla, baina frontoiarekin bezala egiten bada, haiek ere oso garestiak izango dira.

Beste alde batetik, Txorierrin badaude saskibaloiko talde batzuk. Onena Institutuko jendeak osatzen du. Bertan 13 eta 16 urte bitarteko gazteak aritzen dira eta, gainera, talde mistoa da: edozein neska edo mutillek eman dezake izena. Aipatu beharra dago badirela leku bat baino gehiago saskibaloian aritzeko. Derion, esate baterako, partiduak joka daitezke Institutuan eta kiroldegian. Baina, lehen esan dugun bezala, azken honetara sartzeko ordaindu egin behar da.

Txorierriko herririk gehienetan frontisean aritzea doakoa bada ere, oso garestia izaten da Derion: adingabea eta bazkidea bazara, frontoi txikia dohainik duzu, baina bazkidea izan ezean 2,70 euro ordaindu behar duzu; adin nagusikoek 3,90 euro pagatu behar izaten dute bazkideak ez badira.

Igeriketari dagokionez, Sondika edo Derioko igerilekuetara joan gaitezke neguan. Eta udan Zamudio edo Larrabetzukoetaraino hurbiltzen gara estali gabe daudelako. Gazte asko Bakioko hondartzara joaten dira, baina, gure ustez, hobe da igerilekuetara joatea, ez daudelako batere txarto, eta hondartzan baino jende gutxiago dagoelako.

Amaitzeko esan nahiko genuke Derion kirolaz gehiago arduratu beharko luketela.

Testua: Eneko eta Mikel



Txepetxa euskaltegiko uda taldea.

Garraioak

Txorierrin ez dago metrorik eta hori ez dago batere ondo. Areetara joateko, adibidez, Bilborako tren hartu behar dugu, eta bertatik metroz joan Areetaraino. Horretan, gutxi gorabehera, 30 minutu ematen dugu. Metroa edukiko bagenu, euro bat ordaindu, eta azkarrago joango ginateke. Hala ere, beste posibilitate bat ere badaukagu: autobusa. Autobusak 0,95 euro balio du eta 30 minutu ematen du ailegatzeko.

Larrabetzun ez dago Euskotren, eta bertako jendeak oso txarto dauka hortik irteteko. Gure ustez, Euskotren Larrabetzuraino ailegatu behar da, jendeak diru gehiegi gastatu behar duelako Bilbora edo beste leku batera joateko. Esaterako, Bakioko hondartzara joateko Derioraino autobusez joan, eta Bakiorako autobusa hartu behar izaten dute gero.

Gainera, autobus gutxi pasatzen dira Txorierritik: Sondikatik Larrabetzura bat ordutik ordura. Deriora joateko, berriz, hiru autobus izaten dira ordutik ordura, eta, bat galtzen baduzu, ordu laurden itxaron behar diozu hurrengoari. Jendea galdetuko diogu zer pentsatzen duten horren inguruan.

Galdetegia:

Zer deritzozu ordutik ordura hiru autobus bakarrik pasatzeari?

1. Txarto.

2. Ni kotxez joaten naiz lanera, eta ez zait inporta.

3. Ez zait inporta.

Eta 0,95 euroko prezioa izateari?

1, 2 eta 3. Oso txarto dago.

Autobusa galduz gero, zer egiten duzu: hurrengoari itxaron ala trenez joan?

1. Hurrengoari itxaron.

2 eta 3. Trenez joan.

Testua: Jonandoni eta Arkaitz

“Beste sistema bat posiblea da”

Lezamako Izarne Agirre Humanitateak eta Enpresa ikasketak egiten dabil Mondragon Unibertsitatean. Aurtengo udan, Brasileko Nekazari Lurgabeen mugimendua (MST) ezagutzeaz gainera, komunitate bateko partaide izateko aukera izan dau gazteak, eta esperimentzia horren barri emon deitso Aikor! aldizkariari.



Zer dala-ta Brasilera?

Karrerako hirugarren mailan aukera emoten deuskue garapen bidean dagozan lurraldeetara joateko. Eta bertako produktzio era eta kooperatibak aztertu ondoren, horren inguruko lan bat egin behar dogu. Era berean, herrialde horreetako ikasleak urtero Euskal Herria etorri eta Debagoienan izaten dira hilabete batez kooperatibak eta abar ezagutzen. Programa honek Trueke dau izena, eta ikasleok partehartze handia deko gu bertan. Aurten brasildar bi etorri dira, eta jakingura piztuerazo eustien.

Brasil oso handia da... Nondik ibili zinan?

MST mugimendua ezagutzera joan ginan. Brasil osoan zehar zabaltzen dan arren, gu hegoaldera zuzendu gintuen han dagozan kooperatiben organizazioa oso ona dalako, eta hiru estatutan ibili ginan bi hilabetez.

MST aitatzen dozu, zelako mugimendu klase da? Zein da bere helburua?

Sigla horreek Movimento do Trabalhadores e Trabalhadoras Rurais Sem Terra esan gura dabe; euskaraz nekazal langile lurgabeak izango litzateke. Eta hiru helburu nagusi daukiez: lurra lortzea, nekazal erreforma bultzatzea eta, azkenik, danen artean beharreko gizarte eraldaketa egitea.

Zelan gauzatzen da praktikan teoria hori?

Lurra lortzea lehenengo pausua danez, latifundisten lurak okupatzen dabez burruka handiak sortuz; hasieran, batez ere. Lurra berenganatzen dabenean —urteak ere pasatu

ahal dira saiakeran— bertan kanpatu eta, gogemuak lurra produktiboa dala ikusten dauanean, baimena emoten deusie lur horreetan finkatzeko. Hori asentamendua esaten jako. Kanpamenduetan lonazko dendetan bizi badira, asentamenduetan zementu edo egurrezko etxeetan izaten dira, eta argindarra, ura eta baldintza hobeak lortzen dabez.

Noiz eta zer dala-ta sortu zan mugimendu hori?

Brasil en erabiltzen ez dan lur asko dago —%20a %80ren jabea da—, hainbat jende gosez hitzen da, nahiz eta lurretik bizi ahal izango ziran... Eta biztanleria altxatu egiten da azkenean. Lurraren okupazioak 70. hamarkadan hasi ziran, hegoaldeetik iparraldera hedatuz.

Zelan hartu zaitue hangoek?

Sarritan entzuten dogu ezer gitxi daukienek gehien emoten dabena dirala, eta horixe bera ikusi dot nik. Familiako beste bat zara, eta ate guztiak dozuz zabalik beti, nahiz eta ezagutu ez. Hala ere, bizi baldintzak hobetu ahala, balore horreek hoztuz doazala egia ere bada.

Eta gazteria?

Gazteak, leku guztietan moduan, gazteak. Hiritik urrun bizi dira, baina egunero daukie hiriko jenteagaz kontaktua: eskolan, jaietan... Lurbakoak dirala onartzeko orduan, lotsatu egiten dira... Gainera, telebistan soilik Brasilgo hiri eta tokirik politenak agertzen diranez... Hori amets ustela da gazte askorentzat.

“Lurra lortu, nekazal erreforma bultzatu eta gizarte eraldaketa egitea ditu helburu MST mugimenduak”

Zer egin gazteei begira, orduan?

MST-ko militanteak gazteengan kontzientziatze politiko handia sortzen saiatzen dira, lurrarekiko maitasuna bultzatuz... Hezkuntza berezia dabe, eta beste umeekin konparatuz ezbardinak badira ere, gazte batek behar duan aisialdia bardina da han zein hemen. Eta, ahal dabene neurrian, daukien beharrezana futbolagaz edota dantzagaz betetzen saiatzen dira... Gazteek nobedade bila joaten dira hirira; hala ere, favelekin egiten dabe topo, eurek daukiena apur bat gehiago ez maitatzearren.

Zer izan da deigarriena zuretzat?

Brasil eta Euskal Herriaren arteko antza: lehengo baserritarren bizi baldintzak, sutondoan alkartzea, auzokoen laguntasuna... Eta, batez ere, andreen ardura gogorra etxean, soloan... izan ere, ezbardintasun ikaragarria dago sexu biren artean. Baina hain holako mugimendu organizatua egoitea poztekoa da, beste sistema bat posiblea dala erakusten deuskulako. Alkartu, organizatu eta lurra landu, beti ere natura errespetatuz. Bertara joateak hemen zer daukadan eta zer falta dodan konturatzeko balio izan deust.

Goiherri Tuaa!!



Testua: Jose Angel Mentxaka

Estatu Batuetatik etorri barri dira eta harrera beroa egin deutesie herritarrek, "Goiherri Tuaa!!" aldarriagaz batera. Geuk Jose Luis Orozko Ugarte alkarrizketatu dogu: bera presidente, entrenadore eta tiradore be bada Goiherri sokatira taldean. Aurten munduko txapelketatik, 560 kilotako urrezko dominagaz etorri dira. Berak dinoskunez, ez daki nondik atera daben goierriztarrek "Tuaa!!" oihu hori, "gazteen gauzak dira" .

Kontaiguzu non egon zarien.

Rochesterren izan da, Estatu Batuetako Minnesotan. Abuztuaren 30ean joan ginan, txapelketa hasi baino egun bi lehenago. Bero itzela egin dau. Pisua bajatu behar izan da, eta gogor ibili gara, goizean footing, ordu pare bat sies-ta eta arrastian ostera be. Aurten lima-limatuta egon gara, sekula ez da hainbeste bajatu, eta gorputzez inoizkorik fuerteen ibili gara. Ekipoa potentea sar-tzeko, grasa ezin da bat be.

Aurten tiradoreak besterik ez gara joan, eta bost hemen gelditu dira lanagaitik. European izan ezkerro, jende gehiago joaten da, baina hara joatea karu da, 200 ta piku mila pezeta bakoitzak, abioia eta estantzia.

Eta urreagaz itzuli?

560 eta 640 kilotan parte hartu dogu, 13 baino ez garenez joan, batzuk bi eki-poetan tiratu behar izan dabe. 9 taldeko 2 ligatxo egiten dira, eta bakoitzeko lehenengo biak gurutzatu egiten dira finaler-

dietan. 560 kilotan irabazi dogu. Ingelesak, irlandesak dira fuerteenak, amerikanoak aurten bastante baju ibili dira, mutiletan. Aurretik esanda eduki dot, aurten zeozer irabazten ez badogu, frakaso. Horretara egon gara.

Aurten pentsamendu horixe eduki dogu. laz hor ibili gara, orain dala 2 urte Hegoafrikan be aurretik, baina aurten medaila ataratzen joan gara. Ondo urten jaku eta urrezkoa lortu dogu.

Aprobetxa dozue turismoa egiteko?

Rochesterren ikusteko askorik ez dau, Mayo klinika eta hotelak. Gainera aurten turismoa egiteko astirik ez dogu izan. Esan dodanez, egun bi lehenago joan gara, baina egokitzeke eta entrenatzeko erabili doguz.

Txapelketa egunetan goizeko 5etan altxa eta pisura. Ordu bata eta erdiak arte tiradak, gero beste pisuak. Arrastiko 5ak arte ez zan amaitzen, bitartean gailetaren bat jan, bertako "zarama bazkaria", harik eta medailak eta entregatu arte.

"Aurten lima-limatuta egon gara, sekula ez da hainbeste bajatu, eta gorputzez inoizkorik fuerteen ibili gara"

"Medaila ataratzen joan gara. Ondo urten jaku eta urrezkoa lortu dogu"

"Txapelketa egunetan goizeko 5etan altxa eta pisura. Ordu bata eta erdiak arte tiradak, gero beste pisuak"



Tiratzeari ixteko asmoa badau be, taldean jarraituko dau Orozko.

Txapelketa domekan amaitu, astelehenean irten eta martitzenean beharrean.

Euskal Herriko klub batzuk, Nuarbe esaterako, ez dira joan. Zein da zure eritxia arazo honetaz?

Gauzak nahiko endreduta dagoz, bakoitzak interesaten jakona esaten dau, nire eritxia haxe da. Munduko txapelketan klub moduan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa dogu aparte "konbinatu" bat eratu eta "nazio" moduan be parte hartzea. Antzina nazioka joaten izan zanean, paktu bat euki dogu, irabazi ezkerroan, bandera espainola podiunean ez imintea, eta himnorik be ez (Federazio Internazionaleko himnoa zan). Orain 3 urte hasi ziran derrigortuten bandera eta himnoa. Batzuk ez dira joaten, gu ez

"Bandera eta himnoa derrigortuten hasi zirenetik, batzuk ez dira joaten munduko txapelketara. Joan garenok honetan lotu gara: "konbinadu" bat egitea, ez irabazteko moduan, eta final batera ailegatu ezkerro, itxi irabazten. Horrek min gehiago egiten dau, joan ezteak baino"

gagoz akorduan, eta joan garenok honetan lotu gara. "Konbinadu" bat egitea, ez irabazteko moduan, eta final batera -gatxa da- ailegatu ezkerro, itxi irabazten. Horrek niretzat min gehiago egiten dau, joan ezteak baino, etxean lotuta ez dozu ezer egiten.

Laukizkoak eta geuk taldea egin dogu. 560ean naziokako finalera heldu gara, Ingalaterraren kontra, suitzarrak eliminatu eta gero. Finalean hasi ginan aurrera ibiltzen, irabazten itxi genduan. Ingelese, tiratzen hasi baino lehenago esan jaken, kontuz ibilteko, aberiaren bat egin liteke jakin ezean. Publikoak ez ekian ezer, ingelesak bakarrik. Ondo urten jakun, finalera heldu eta itxi, hor daukazue. Jendea huuuu-ka hasi zan, suitzarrek hasarretu egin jakuzan, Federazio Internazionaleko presidenteari be ez jakon gustatu, "final bat galduazo" deussegula. Etorri ziran galdezka zergaitik egin dan, eta esplika jaken. Problema haxe da eta punto, ulertu gura dabenak ulertu daiala.

Zelan ikusten dozu sokatira kirola lez?

Kirol olinpikoa izan zan, orain barriro sartu da Komite Olinpikoan, denboragaz izango da. Euskal Herrian betikoak gagoz. Barriak hasten dira, urte bi, hiru eta ito. Urten ezkerro, euren artean ibili beharko ziran, zeren betikoen kontra hasten dira eta desanimatu egiten dira.

Sakrifizio asko dauka eta guretzat munduko txapelketa da alizientea, konpetidu fuerteen kontra, aurtan honaino heldu zara, ea hurrengoan.

Eta zeu noiz arte jarraitzeko asmoagaz?

Hasierakoetatik neu naz bakarrik lotuten dana, 48 urtegaz. Tiraten segitzeko asmorik ez dot, baina taldean jarraitu bai. Gazteak etorri behar dira ordezkatzeko. Gazteak olgetan ibili behar dira eta 3 edo 4 urte, gero konpetizioan sartu.

Klubaren historia apur bat

Orain dala 27 urte sortu zan. Garai batean nesken talde bat be baegoan, baina desegin egin zan. Lehen goman eta lurrean tiratzen eben, gaur egun goma itxi eta lurrean baino ez dabe tiratzen, biak lar direlako. Lurra gogorragoa ei da eta fisikoki fuertea goa egon behar da.

Munduko eta Europako txapelketa gehienetan parte hartu dabe. Urte baten da mundukoa eta hurrengo Europakoa. Iaz Holandan egon ziran; aurrekoetan, Hegoafrikan, Suitzan, Ingalaterran... datorren urtean Europa mailakoa tokaten da eta Polonian izango da.

Hainbat txapelketetatik sariagaz etorriak dira. Euskal Herri mailakoak kontatu barik, lurrean Suezian 1988an bigarrenak izan ziran. 1990ean open bat irabazi eben Holandan. 1991eko munduko txapelketan Faturan hirugarrenak.

Gaur egun 18 tiradore dira, gehienak Erandiokoak. Astero 4 egunetan ordu bi eta erdiko entrenamendua eukiten dabe Goierriko eskola zaharrean daukezan instalazioetan. Laster hasiko dira denboraldi barriko entrenamenduak.



Goierri taldeak ingelesak irabazi ebazan 560 kilotan.

Belaunaldi bi, batuta bera eskuetan



Testua: Itxaso Marina

Argazkiak: Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa

Larrabetzuko Josu Loroñok Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa sortu zuen 1963an. Loroñorena orkestra berezia da akordeoi arloan, bertan aritzen diren soinulari guztiek Loroño Musikaltea eskolan ikasi baitute. Berrehun obrak baino gehiagok osatzen dute orkestraren erreperitorioa; haien artean, zartzuelak, euskal musika eta antzinako egileek nahiz berak konposatutako hainbat pieza sinfoniko. Bilboko Akordeoi Orkestra munduko onentzat daukate adituek, eta horrela erakutsi dute partaideek Euskal Herrian, Estatuan eta Europan emandako hainbat kontzertutan. Duela gutxi sortzaileak zuzendaritza utzi, eta alaba Amagoiak hartu zuen errelebua. Aikor! aldizkaria berarekin egon da solasean.



Musika klasiko eta herrikoia akordeoira moldatu zituen Loroñok, besteak beste.

Izaera eta irudia

Josu Loroño 1929. urtean jaio zen Larrabetzun. Gazte-gazterik musikarako zaletasuna erakutsi, eta piano eta armonia ikasteari ekin zion Bilboko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan; bertan, kalifikazio bikainak lortu zituen.

Amagoiak kontatu digunez, behin akordeoia oparitu, *“eta instrumentuarekin maitemindu zen. Prestakuntza ezin hobea zuenez, ikerketa lanak egiten hasi, eta bakarlariarentzako obrak adaptatu zituen”*. Obra horiek orkestrak duen altxorrik handiena direla azaldu digu Amagoiak. *“Garai horretan, Frankismoan hain zuzen ere, ez zegoen ezer kanpotik ekartzeko aukerarik, ezta akordeoirako literaturarik ere. Orduan, berak akordeoi metodo pedagogikoak sortzeaz gainera, musika klasiko eta herrikoia akordeoira moldatu zituen eta obra sinfoniko berriak egin zituen”*. Horrela, bada, orkestraren



Zortzi partaidek osatzen zuten orkestra 1963. urtean.

artxiboetan ehunka eta ehunka lan topa daitezke: ospe handiko konpositoreen adaptazioak (Beethoven, Mozart, Schubert...), herriko musika, musette, euskal musika... Obra horiek guztiak bereziki estilo sinfonikoan atundu zituen.

Beste alde batetik, pianoa eta akordeoia irakasten zituen. *“Amarekin Bilbora ezkondu, eta eskola jarri zuen”*, gogoratu du alabak, *“Alemaniako Honner orkestra ezagutu ondoren, hemen zerbait antzekoa egin zezakeela pentsatu zuen. Orduan, 8 ikaslerik onenak hartu, eta Akordeoi Orkestra sortu zuen 1963an”*. Une latzak ziren horiek, eta entseguak etxean edo utzitako lokaletan egin behar ziren, Bilboko egoitza lortu arte. Kennedy hil zuten egun berean eman zuen lehen-dabiziko kontzertua orkestrak.

Maisuak orkestra, eskola eta Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioko ira-

kasle lana uztartzen zituen. *“Eta lar borrokatu zuen Kontserbatorioan akordeoia ikasgai ofizial bihurtzeko, izan ere, garai horretan ez zegoen akordeoi titulurik; berak Madrilgo Kultura Ministerioak emandako lizentzia zeukan”*.

Kontzertuak eta birak etorri ziren gero, eta denboraren poderioz Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa Europako onenatariko bat bihurtu zen. *“Berrogeita bat urte hauetan 120 pertsona pasatu dira orkestratik; gaur egun 30 partaide gara. Eskarmentu handia izateaz gainera, guztiok ikasi dugu Loroño Musikaltegian. Bertan oso gazte hasten dira, 4 urterekin, eta baten bat gailentzen bada, berarekin lan egin, eta orkestrarako hartzen dugu”*.

Bere ibilbide artistikoa dela eta, hainbat erakundek omendu dute Josu Loroño maisua; euren artean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak.

"Sentimenduen kooperatiba da gure orkestra"



Ardura handia hartu zenuen, beldurrik?

Beldurrik ez, nostalgia bai; izan ere, jotzea faltan botatzen dut askotan. Sentsazio hori erabat desberdina da... Dena dela, erresponstabilitate handia hartu nuen, orkestra portura eraman behar den itsasontzia baita, eta jendaurrean aritzen zaren bakoitzean sentimendu ezberdinak izaten dituzu, nahiz eta pieza bera hamaika aldiz jo. Teknikoki kontzertu ederra eman ahal da, baina publikoaren zein musikariaren aldetik berotasun hori izan ezean... Beno, nik hartu nuen itsasontziko lema; hala ere, esan nahi dut Asier neba barik ez genuela ezer lortuko, biok aitaren lanarekin jarraitu baitugu. Asier baxu bakarlaria da orkestran.

Beste alde batetik, sentimenduen kooperatiba bezalakoa da gure orkestra; hainbat entsegu, ordu eta urte eman ditugu

elkarrekin, ze gure arteko harremana ezin estuagoa den. Hainbat anekdota ditugu kontatzeko...

Kontatu!

Burgoseko Las Bernardas monasteriora kontzertu ematera joan ginen behin, eta jende asko bildu zen bertara. Guztientzako lekurik ez, eta belarrondokoak ematen hasi ziren jesarlekua lortzeko. Azkenean poliziek etorri behar izan zuten... Egia esan, momentu onak eta txarrak daude mundu honetan. Beste behin, Arabako herri bateko ermitan saioa eskaini genuen 30 pertsonaren aurrean. Imajina ezazue! Neguan, goizeko 11etan, egundoko hotzarekin, eta apaizak guri txarto begiratzen... -apaiz batzuek ez dute onartzen eliza erabiltzea beste ekintza batzuk egiteko-. Baina guri ez zitzaigun inporta, haiek nahiz Guggenheimera etortzen direnek gu ikusteko eskubide berea dutela pentsatzen dugu eta.

Munduko akordeoi orkestra sinfonikorik onentzat daukate zuena...

Aitaren meritua da; Asier eta biok bere lanarekin jarraitu baino ez dugu egin. Hala ere, aita erretiratu zenean, trantsiziozko unea izan genuen, orduan kezka nagusia

Loroñorenean musika zebilen bazter guztietan: aitak akordeoia edo pianoa jotzen du, ikasleek entseguak egiten dituzte... Horregatik, ez da arraroa seme-alabek ere musikarako maitasuna izatea txikitatik. Amagoiak bost urterekin akordeoia jotzen hasi, eta hiru urte geroago lehenengo kontzertua eman zuen orkestrarekin. Instrumentuaren ahots guztietatik pasa ondoren, 20 urte eman zituen solista moduan. Eta 2000an, aita erretiratu zenean, berak hartu zuen orkestraren zuzendaritza.

ez zen izaten nork hartuko zuen zuzendaritza, baizik eta nola moldatuko ziren soñulariak zuzendari berriarekin. Izan ere, aita oso zorrotza zen entseguak egiten eta kontzertuak ematen, eta ni emakumezkoa nintzen... Gainera, momentu horretatik hona orkestraren errepertorioa handitu behar izan dut, eta, egia esan, hori da gehien kostatzen dena.

Lehenengo orkestraren eta oraingoaren arteko desberdintasunik?

Erreperteriori dagokionez, malgutu egin garela uste dut. Lehen aipatu dudana bezala, aita eskola alemaniarrekoa zen: musika obra handiak jo behar ziren, dena seriotasunez... Nik, ordeztu, musika norberak gozatzeko eta publikoari gozarazteko egin behar dela pentsatzen dut, eta ez dominak lortzeko edo sariak irabazteko.

Askotan galdetu didate zein den publikorik onena. Nire ustez, publikorik onena gozatu egiten duena da, eta berdina dit musikan jantzita badago edo ez. Errepertorioa nahikotxo mimitzen dut nik, izan ere, gurea ez da ohiko orkestra sinfonikoa, eta jendeak soilik akordeoiak entzuten dabilela ahaztu eta orkestra arrunt batekin bezala disfrutatzea nahi dut.

"Nire ustez, publikorik onena gozatu egiten duena da, eta berdina dit musikan jantzita badago edo ez"



Zuzendaritza utzi baino lehen, Loroñok egindako azken kontzertua.

Akordeoa nahiko ezezaguna da oraindik...

Euskal Herriatik kanpo bai, baina hemen nahiko ezaguna da Kepa Junkeraren lanari esker. Bera aparteko trikitilaria da. Eta oso pertsona ausarta ere bai, ez duelako esperimentatzeko beldurrik izan, puristek asko kritikatu arren.

Beste alde batetik, egia da entzule asko harrituta gelditzen direla: —Nola izan daiteke akordeoi orkestra izan, eta klarinete eta flautak entzuten ari naizela iruditzea? Nire iritziz, nahi den instrumentua ahalik eta ondoen jo behar da, eta akordeoiak aukera handiak ematen ditu horretarako.

Esperimentatzeko aukerarik ere bai?

Ez, zaila da, akordeoi orkestra bloke bakarra baita. Keparekin egin ditugun kolaborazioak beraren eta orkestraren arteko jokoak edo keinuak izan dira.

Beste musikari batzuekin ere egin dituzue hainbat kolaborazio...

Bai, Natxo de Feliperekin eta hainbat eta hainbat tenore, sopranorekin... Aspaldian Benito Lertxundirekin eman zuen kontzertua aita, baina beste garai bat zen, eta poliziak baimena eman behar zizun musika obra bati izena jartzeko ere... Aitaren kontzertuetan euskal kulturari eta musikari buruzko erreferentziak izaten ziren beti. Eta behin baino gehiagotan jaso zituen mehatxuak, abeslari batzuekin jotzen jarraituz gero, akordeoi guztiak erreko zizkiotela esanez.

Nola ikusten duzu orkestra momentu honetan?

Sasoi onean dagoela esango nuke. Partaideen kalitatea eta diziplina aipatuko nituzke, kontzertuen bizitza izugarri gustatzen zaiela... Guztiek Loroño Musikaltegian ikasi dute, eta elkarrekin lan egin behar dutela irakatsi zaie hasiera-hasieratik. Ni divotasunaren aurka nago. Orkestra batean solidarioak izan behar dugu, mundu guztiak ez baitauka maila berdina eta berria denari irakatsi egin

behar zaiolako... Inportanteena orkestra osoak aurrera egitea da.

Kontzertuak atzerrian, estatuan eta Euskal Herrian eman dituzue. Hala ere, kanpoan hemen baino lan gehiago duzue orain...

Beno, egia esan, ez dugu hemen gogaitu nahi... Madrilen, Galizian edo Portugalen lan egiteko aukerak izan, eta aprobetxatu egin ditugu. Dena dela, asunto hori boladaka izaten da: ez dakit nongo udalak edo Foru Aldundiak kultura programa prestatu, eta orkestra deitzen du bertan parte hartzeko... Orkestran 30 bat lagun gara —gehiago edo gutxiago kontzertua emango den tokiko edukiaren arabera—, eta ez pentsa erraza dela hainbeste jende mugitzea! Gainera, bidaia guztiak autobusez egiten ditugu, instrumentuak kamera berezietan sartuta eraman behar baitira hegazkinaz; bestela, desafinatu egiten dira.

Eta 6 disko kaleratu dituzue; azkena Bilbao Accordion aitaren omenez...

Bai, iaz atera genuen, orkestraren 40. urteurrena zela eta. Abestien bilduma da, eta bertan baltsak, zortzikoak, Asierrek eta biok jotzen dugun tangoa eta beste asko topa daitezke. Era berean, aita Larrabetzuri egindako Nere herria biribil-keta ere sartu dugu. Aitak garrantzi handia ematen die sustaiei, eta berak irakatsi digun bezala: ezin da iraganean bizi, hala ere, ez da ahaztu behar.

Zein ezaugarri nabarmenduko zenuke berarengandik?

Erromantiko hutsa izan dela, eta erromantiko guztiak bezala, idealista eta iraultzailea. Gizon langilea eta zintzoa izan da; bere egiaren alde lan egiten, eta bere herriarekin gogoratuz beti. Eta lanerako oso pertsona zuzena.

Orkestraren helburuak?

Lehenengo eta behin, gure errepertorioa handitu nahi dugu. Halaber, Do Re Mi



Amagoiak eta Asierrek aitaren lanarekin jarraitu dute.

“Orkestra batean solidarioak izan behar dugu, mundu guztiak ez baitauka maila berdina eta berria denari irakatsi egin behar zaiolako... Inportanteena orkestra osoak aurrera egitea da”

Ka kanpainarekin jarraitzeko asmoa daukagu. Ikuskizun hau 11 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta akordeoi eta orkestraren mundua eurei hurbiltzea du helburu, baita antzokira joatea ere. Esperientzia honetan 25.000 ikasle euskaldunek hartu dute parte, eta aurten 5. edizioa beteko da.

Horrezaz gainera, azken diskoa prestatzen gabiltza. Herriko musikak nahiz lan sinfonikoek osatuko dute, eta mundu guztiak gozatzeko moduko lana izango da, beraz. Ziur asko, aurkezpena Madrilen egingo dugu martxoan.

Eta amaitzeko, zer deritzozu gaur egungo musika panoramari?

Jende askok musika ikasteko aukera dauka: ia herri guztietan akademiak izaten dira. Eta ederto deritzot. Hala ere, profesionalki aritzea zaila da, epe luzerako karrera baita, hau da, konstantzia handia eskatzen du. Gainera, oso umiliagarria ere izan daiteke: atzamarrekin trebea ez bazara, akabo! Orkestraren partaide guztiok tituludunak bagara ere, titulu horiei ez diet nik garrantzi handirik ematen. Nire ustez, musika zuzenean egiten da, eta jotzeaz gainera, musikariak erraztasuna izatea da inportanteena. Eta laguntzei dagokienez, zer esango dizuet, ba? Instituzioek gutxi laguntzen digute musikariori.

Ameriketara joan nintzan



Udako beroak hasita, mendian gora joaten ziran artzain, txakur, zaldi, asto eta ardiak, eta bertan udako kanpamenduak eratu.

Bildotsak loditzeko garaia zan eta lertxunen gerizpetan ardiek "belar urdina-goa" eta gozoagoa izaten eben.

Mendian artzainen bakardadea aldizka ebagiten zan. Batzuetan koio-te, hartz eta bakeroei esker "animazio" tarteak eukezan eta lasaitasuna amaitu egiten zan; beste batzuetan jan-edanak, herriko barriak-eta etxetik heldutako kartak ekarten eutsiezanean.

Bisitaldi honeek astero edo hamar egunik behin izaten ziran. Hori zan berba egiteko eukera aukera bakarra, ostera egunak eta gauak luze egiten jakezan.

Ondorengoko bertsoetan Leon Bereau artzain lesakarrak azaltzen dau berak jasan-dako bakardade eta eguneroko bizitza:

*Etxe bikaina izaten degu
uda pasatzeko hartua
lona mutur bat lau eskinetik
lau kordoikin lotua
egur bat xutik egon dedille
erditikan paratua
horren barrenin izaten dira
sukalde eta kuartua.*

*Mendia hoiek nolako diran
batek ez daike pentsatu
arroka ta harri tartian
askotan ezin pasatu
erreka eta xoko tristiak
batek bihar du ikaratu
hemen emandako pausuk ez laizke
dolarrarekin pagatu.*

*Ilundu orduko hasiko dira
kuiutiak erausikan [zaunka]
bat bestiari abixatutzen
hau da horien musikan
txarrak ez du izitzen
gaua iluna gantikan
gure ardiak ia non dauzten
ez du inork esan beharrikan*

Joxe Malle-Olaetxeren Shooting from the lip: bertsolariak Ipar Amerikan liburutik.

Udako kanpamenduetan aurkitzen doguz artzainek zuhaitzetan egindako hainbat marrazki eta aztarna.



Lake Tahoeko lertxun marrazkiak, 1993 (Nevada).



Joxe Mallea, 1993ko urtean Tahoeko basoetan.

Munitibartar Joxe Mallea-Olaetxe, hogei urtetik gora ibilia da Estatu Batuetako mendietan, artzainek egindako zuhaitz markak, "lertxun marrazkiak", aztertzen eta argazkiak ateratzen.

Nevada, Idaho, Arizona, Wyoming, eta Kaliforniako arboletan agertutako izenak, artzainen mugimenduak aztertzeko gida dira.

Denbora-pasa izandakoa, arte eta dokumentu historiko bihurtu da. Honek, erroldetan agertzen ez diran artzainen izenak bildu dauz.

1968.urtean ikusi eban Joxe Malleak lehenengo lertxun marrazkia. Elko inguruan izan zen, Coon Creek Summiten, 3.000 metro-tako altueran. Ordutik hona 20.000 ikusita eta kokatuta daukaz eta 12.000 inguru aztertuta.

Udako beroagaz Ameriketara joan ziran ondoren aipatzen dodazan txorierritarrak

UZTAILA					
<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Maria A. Goicoechea	28	Sondika	1916/07/24	Jordan Valley (Oregon))	Senarra, Ambrosio Elorriaga
Carmen Elorriaga	7	Sondika	1916/07/24	Jordan Valley	Aita, Ambrosio Elorriaga
Amalia Elorriaga	4	Sondika	1916/07/24	Jordan Valley	Aita, Ambrosio Elorriaga

Ambrosio Elorriaga 1911ko ekainaren 21ean heldu zan, 31 urte gaz, Idahoko Nampa herrira joatekotan. Beragaz batera Nicolas Bilbao erandioztarra. Ambrosio Laukizen jaioa zan.

ABUZTUA					
<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Santiago Goiri	28	Erudio	1920/08/12	Tuscarots (Nevada)	Anaia

IRAILA					
<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Venancio Elorduy	18	Erudio	1909/09/24	Boise (Idaho)	Serapio Olano
Francisco Yzaguirre	18	Larrabetzu	1919/09/26	Barkuan lanean	

Testua eta argazkiak: Amagoia Guezuraga

Ondo pasatzeko irakurri behar da

Umeak bost hilekin has daitezke irakurtzen, Juan Carlos Alonso psikologoaren ustez

Testua eta argazkiak: Iñaki Astorkiza

Irailaren 9an, 20an, eta 23an, hitzaldi interesgarri batzuk egin dira Zamudioko udal liburutegian, bertako arduradunak antolatuta. Zazpi urte arteko umeen irakurzale-tasuna nola bultzatu izan dute gaia. Hitzaldiok Juan Carlos Alonso psikologoak eman ditu, eta batez ere guraso eta hezitzaile-entzat zuzendu ditu.

Hitzaldiotan atentzioa eman zigan lehenengo gauza izan zen zelan definitu zuten Juan Carlos Alonsok zer den irakurtzea: irakurtzea sinboloak interpretatzea da; beraz, marrazki batzuk identifikatzen dituenean, irudi batzuk ikutzen dituenean... umea irakurtzen ari da.

Kontzeptu hori argitu ondoren, irakurtzeak daukan garrantziaz eta umeari ekar diezazkion onurez mintzatu zen; horretarako, umearen garapenean garrantzi berezia duten atal batzuk jorratu zituen.

Alonsok esan zuen itzelezko zeri-kusia duela irakurtzeak haurra psikologikoki eta intelektualki garatuz doanean: irudimena eta sormena indartzen laguntzen du, sentsibilitatea esnarazten du, eta, zer esanik ez, adiskide interesgarria dugu irakurketan bai beldurra gainditzeko, bai arazoak konpontzen laguntzeko, bai eta auto-estima bultzatzeko ere. Ezin dugu ahaztu informazio-iturri ere



Alonsoren ustez, afektibitatean eta garapen sozial zein linguistikokoan eragin zuzena du irakurtzeak.

badela; beraz, jakin-mina pizten duela, pentsarazten duela, zergatiei erantzuten laguntzen duela eta batez ere burua martxan jartzen duela azpimarratu zuen psikologoak.

Afektibitatean eta garapen sozial eta linguistikokoan ere eragin zuzena du irakurtzeak, komunikazioa bultzatzen baitu eta giza harremanak ulertzen laguntzen baitie umei.

Juan Carlosen ustez, pertzepzio sentitiboa eta ahalmen estetikoak ere indartu egiten ditu irakurketak, eta baloreak bideratzeko tresna ederra da, zer esanik ez.

Amaitzeko, Alonsori galdetu genion ea zer irakurri behar duten umeek. Ipuin onak eskaintzea oso garrantzitsua dela erantzun zuen hark, baina denetarik irakurri behar dela gaineratu zuen. Ez ahaztu: ondo pasatzea da helburua.



Familiak, eskolak eta liburutegiak elkarrekin lan egitea beharrezkotzat jotzen du Alonsok, umeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko.

Irakurketari buruzko 10 galdera Juan Carlos Alonso psikologoari

1.- Zergatik irakurri behar da?

Ikasten delako, baloreak transmititzeko... gauza asko ikasten delako eta batez ere, ondo pasatzeko.

2.- Noiz hasi behar da?

Ez dago adinik. Txiki-txikitatik landu behar da. Jaio aurretik ere amak lagun dezake.

3.- Zer irakurri behar du umeak?

Umeak nahi duen hura.

4.- Gaur egun lehen beste garrantzi dauka irakurketak?

Irudimena lantzeko beste euskarriek baino gehiago laguntzen dio umeari.

5.- Irakurri ezean, zer galtzen du umeak?

Lehenengo eta behin umea ez dela behartu behar esan behar dut. Beste alde betetik, galderari erantzunez, sentimendu batzuk galtzen dituela esango nuke.

6.- Familiak nola eragin dezake?

Umeek, gurasoak irakurtzen dutela

ikusi behar dute. Liburutegira eroan behar dira, materialak eskaini behar zaizkie eta batez ere, irakurketaz eurekin gozatu behar da.

7.- Eskolari pasatzen zaio askotan irakurketaren ardura.

Eskolak materialak eskaini behar ditu, liburutegi on bat eduki behar du. Liburutegia ez da lanak egiteko baino erabiltzen ez den leku bat.

8.- Irakurzaletasunaren aldeko kanpainen badute eraginik?

Puntualak badira, ez dute balio izaten. Jarraipena badute eta benetan horretan sinesten bada, bai.

9.- Zein da herrietako liburutegien egin-beharra?

Familiarekin eta eskolarekin koordinatzea, aholkuak-eta eskainiz, eta umeen bisitak maiztasun batekin ziurtatzea.

10.- Liburuen salneurria ez ote da gehiegizkoa?

Liburutegiak daude eta horietaz baliatu behar gara.

Alonsok liburu gomendagarrien zerrenda batzuk ere eman zizkien ber-baldietan parte hartu zutenei. Liburutegiaren arduradunaren esku ere utzi zituen.

Hona hemen liburu gomendagarri batzuk:

0 Urtetik aurrera

ALCANTARA, Ricardo. *Handia izan nahi dut*. Tarttalo, 2000

ARRATIBEL, Joxe. *Txomin Ipurdi*. Erein, 2001

MENDEZ, R. *Manex eta Pierres*. Kalandraka, 2001

URMENETA, Asisko. *Nora hoxa Xirimola*

SANCHEZ, Mireia. *Baloia eta Katua*. Tarttalo 2000

6 Urtetik aurrera

ANDERSEN, Hans Christian. *Erregearen traje berria*. Kalandraka, 2001

AÑORGA, Pello. *Bide Majikoa*. Aizkorri, 2000

ARRATIBEL Joxe. *Etsai zaharra eta mendiko lehoia*

ETXANIZ, Xabier. *Musu lapurra*. Aizkorri 2001

IGERABIDE, Juan Kruz. *Jonasen iratzrgailua*. Aizkorri 2001

Kontatzeko ipuinak

ADAMS, G. *Cuéntame un cuento*. Timun Mas 1999

ANDERSEN, Hans Christian. *La princesa y el guisante*. La Galera 1994

BALLESTEROS, Xoxe. *Tío Lobo*. Kalandraka 2000.

CORENTIN, Philippe. *iChaf! Corimbo*. 2000

SATO, Wakiko. *Pío-pío*. Corimbo 2002

Bakarrik "irakurtzeko" ipuinak

ALBOROUGH. *Mua*. Montena, 2000

URMENETA, Mikel. *Kukuxumuxu*. Akabada, 2001

PIÉROLA, Mabel. *No sé*. 1998. Col.

Los piratas

Bildumak

Amets egiteko ipuinak. Kalandraka.

Betiko ipuinak. Elkar

Sagutxo bilduma. Tarttalo

Mendi sorgindua. Aizkorri

Tento bilduma. Ibaizabal

“35 urtetik beherakoek botoi bat josten be ez dakie”



Testua eta argazkia: Fernando Larrondo

Askotan pasaten da negozio edo enpresa ideia berriak sortu eta abian ipinteko lehiaketak egiten dirala eta, egitasmoak pentsetan ordu franko emon ostean, praktikotasunik eta bideragarritasunik ezak jota jaioak izaten dirala. Izan be, ideiarik onenak josibako botoi xumeetan, etenbako argaltze-loditze prozesuen ondorioz armairuan gordeta geratzen diran praka, gona eta antzekoetan egon daitekez, estalduta, nori bururatuko zain. Gaur eguneko bizimoduak ezaugarri dituan presak, gauzak arin egin eta euki gureak eta edozein motatako ondasunen gehiegizko ugaritasun eta eskuragarritasunak ia lurperatu eben ogibidea erreku-peratu dabe Derion Maria Angeles Bearan eta Maura Sánchezek. Jostunak-Arropa konponketak errotulupean, emakume ekintzaile bi honeek euren negozioa aurrera atara dabe, informazioaren gizartean makina bat dobladillo solte dabil eta.

Ganburu kalean, haur eskolaren alboan, dago jostile honeen tailerrean. Jendaurreko presentazioa maiatzean izan bazan be, joan dan urteko urrian hasi zuten euren enpresa jarduna. Bazkide biak eta kontratatutako langile bat dabilz beharrean. Eurekaz berbetan egon gara ekimen honen barri emon deiguen.

Egia da, inoz izan dan belaunaldirik pre-paratuena, ikasiena dogu eta alkondarretatik botoiak desagertzeko zorian.

Alde batetik, jenteak, gaur egun, ez bi dauka astirik josten ordu lauren bat emoteko, eta bestetik, askotan, erropea konpon-

du beharrean barri erosten da. Ganera, jostile oso gitxi dagoz, desagertzen joan dan ofizioa da. Guk, negozioa zabaltzeko ideia-gaz hasi ginenean, oso argi geunkan zeregin honetan bazala gabezia nabarmen bat merkatuan, eta geure kabuz lan egitea gogoko genduan, josteari eta erropen konponketari ekin geuntsan. Hasikera baten, Bilbo Zaharreko denda batzuetako erropak konpontzen genduzan, eta apurka-apurka, merkataritza zentru handietako denda handietan sartzen hasi ginan. Zorte handia euki genduan, ezin ezetz esan, Max Centerreko Cortefielek euren erropen konponketen ardura guri emon euskuenean.

Bueno, ez bakarrik zortea, berton jostile aritzeko froga batzuk gainditu beharra egoan eta.

Cortefiel moduko denda batek zuengan jarritako konfidantza bultzada itzela izango zan, ezta?

Bai, honek gure negozioan egin beharreko inbertsioei aurre egiteko dirusarrera iturri jarrai eta seguru bat ekarri euskuen, eta bestalde, norbera be animatu egiten dalako. Urtebete daroagu lan hartu-emon honegatz, eta nire ustez, pozik gagoz alde biok.

Cortefielez aparte, lehen esan dodan moduan, Bilboko beste denda eta marka



Bilbo Zaharreko denda batzuentzat lan egiten hasi, eta apurka-apurka, merkataritza zentru handietako dendetan sartu dira.

batzuentzat be josten dogu, Promode, Punto Roma, Lacoste, Armani, besteak beste.

Armani aitatzen dozula, beharbada bere ibilbide bera eroango dozue. Bera be konponketa tailer baten hasi, gero diseinatzaile lanetan, eta begitu non dagoan gaur, jainkoa. Batek daki.

Gure lehenengo pausu honeetan lortu gura doguna Derioko jentea erakartzea da, gudan konfidantzazko eta kalitatezko jostekile batzuk daukiela ikus dagien. Begira, esan behar da, Armaniren kontu horren ildotik, gure inguruan eskola eta akademietatik urten diren diseinatzaile gazte asko dagoala gaur egun, baina, hori, diseinatzaileak. Ideia polit eta barriak daukiezanak, eta paper ganeko patroiz zoragarriak egiten dabezanak, baina gero hori ehun mota desberdinetara eroateko, honeek ebagiteko, josteko gauza ez diranak. Jostekileok rara avis batzuk gara, gero eta gitxiago gara, eta, egia esateko, pentsetan dot gure lana nahiko beharrezkoa dala pertsona askorentzako.

Zeintzuk dira gehien egiten dozuezan konponketak?

Danerik. Praka, gona eta soinekoen azpiko aldeak, gerriko aldeak, albokoak.

Amerikanak be neurritara moldatzen doguz. Orokorrean, sastreriako arropa mota desberdinak konpondu eta moldatzen doguz. Erropen zaharbarritzea be egiten dogu. Danerik. Ganera, lihoa, narrua, antea, puntua, ehun guztiakaz lan egiten dogu, horretarako tresneria berezia erosi dogu eta.

Jakina, egin zenduen inbertsioa be ez zan edozelangoa izango.

Bai, inbertsio polita izan da, josteko makina industrialak erabiltzen doguz eta. Halango negozio baten ezin zara ibili ia etxe guztietan alboratuta egoten diran betiko makinakaz. Guk makina bereziagoak daukaguz, remalladorea, puntada ikustezineko makinea, puntua josteko makinea... Inbertsio garrantzitsua da, bai, baina seguru gagoz merezi dauala, lanbide honen beharra dagoala uste dogulako. Deriotik hasita, hemen euki dogun ongietorria ikusi eta gero, Txorierri osoko bizilagunengana heldu gura dogu.

Hemendik aurrera, beraz, ez dago atxakiarik dobladilloak narras eroateko (moda kontuengaitik ez bada) eta urratuta egozan orain dala bost urte erositako jakak armai-rutik ez atarateko. Jostunak-Arropa konponketak, goi mailako jostekileak.

Emakumeek bultzatutako 5 enpresa jarri dira martxan Txorierriin

Jostunak-Arropa konponketak enpresa ideien arrakasta ikusita, Behargintza-Txorierriko teknikariak eurekazu batu dira, negozioaren hainbat arlo —organizazioa, gestioa— aztertu eta hobatu gura dabe.

Behargintzak autoenplegua sustatzeko ikastaroak antolatzen dauz, eta, bereziki, emakumei zuzenduak, beroneek daukien egoera pertsonala kontuan hartuta (seme-alabak, etxeko lanak...) arreta espezializatuagoa behar dabela uste dabelako.

Behargintzako Ana Elorriaga teknikariaren esanetan, antolatutako mintegietan parte hartzen daben emakumeek baikor ikusten dabe autoenpleguaren bidetik jotzea. Mintegi horreetan zenbait arlo aztertzen dira: motibazioa eta ideien lehiaketa, aurrebideragarritasun fasea eta negozio plana. Ildo horretan, aitatu behar da Derion egindako azken seminarioan 4 emakumeek emon dabela izena. Horreetatik batek negozioa martxan jartzeko asmoa dauka. Mintegietan 35 eta 40 urte biarteko emakumeak hartzen dabe parte normalean; guztiek goi mailako ikasketak burutu dabez, eta zerbitzu-sektorerara bideratzen dabe negozioa: dendak, ilea-paindegiak, mertzeriak...

Dana dala, teknikariak azaldu deuskun lez, mintegietan orokorrean emakume gehiago badagoz be, gizonak izaten dira negozioa jartzera animatzen diranak azkenean, lehen aitatutako familiako karga dala eta.

Azken urte biotan 16 enpresa sortu dira Txorierriin, horreetatik 5 emakumeek sortuak. Era berean, 3 negozio eratze aldian eta 15 proiektu dagoz gaur egun. Enpresa horreen sustatzaileetatik %40 emakumezkoak dira.

“Potentzial handia daukagu herrian”



Loiuko Euskal Kultur Elkartea (LEKE) 2003ko irailean sortu zen, herriko guraso batzuek bultzatuta. Talde berria ez ezik oso gaztea ere bada, bertan 5 eta 14 urteren arteko 40 bat gaztetxo jo ta ke baitabiltza euskal dantzak ikasten. Iñigo Couto elkartearen presidentek proiektu honen berri eman dio Aikor!ri.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: LEKE

Zer dela eta animatu zineten taldea sortzera?

Batzuk folklore munduarekiko harreman estua daukagu, eta herrian gaztetxo asko zeudela ikusita, euskal dantza taldea osatzea pentsatu genuen. Beste guraso eta herritar batzuk ere animatu, eta horrela sortu zen LEKE euskal dantza taldea.

40 gaztetxo; entseguak egiteko leku zabala beharko duzue...

Entseguak ostiralero egiten ditugu udaletxe ondoko frontoian, arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Eta bi txandatan: lehenago

“Herriko gaztetxoan arteko harremana estuagoa izatea du helburu elkarteak”

txikienak aritzen dira, eta gero gainerakoak. Aurten jende gehiagok izena emanaz gero, ordutegia luzatu beharko genuke.

Ondo moldatzen gara bertan, baina gimnasioan hobeto egongo ginateke agian, korru dantzak egiteko orduan frontoia txikia gelditzen zaigu eta. Baina ondo gaude... Neguan hotzaren beldur ginen; hala ere, oso ume gutxi egin zuten huts. Izan ere, hotza lau salto egitearekin kentzen da... Akustika ere ez da oso ona, baina arazotxo horiek denboraren poderioz konponduz joango dira. Inoiz lokal berriak egiten badira, lehenengoak izango gara bat eskatzen.

Nor dabil dantzak irakasten?

Sondikako Gorantzailleak taldeko Janire eta Andere ditugu monitore, eta ederki egiten dute euren lana. Nik lagundu egiten diet mutilekin, gutxi baitaude, eta nesken dantzak irakasten dabiltzanean mutilek zer egin ezean gelditzen dira. Eurei irakasteko mutil bat hartzeko asmoa daukagu aurten.

Mutilek mutilen dantzak egin behar; neskek neskenak. Inoiz dantzatuko dituzte batak zein besteak sexua kontuan hartu barik?

Gai hori eztabaidagai dugu talde askotan, eta inoiz horrela gertatu behar da, nire ustez. Emakumearen parte hartzea bultzatu behar da, baina zehaztasun batzuk kontuan hartuta; eta alderantziz, noski. Demagun, herrian dantzen agerraldia eskaini behar, eta mutil bat faltan duela taldeak. Orduan, neska bat bere ordeztatzeari ondo deritzot,

herri mailan egiten den gauza baita. Baina Dantzari Egunean parte hartu edota kanpora ateratzekotan kontua aldatu egiten da, nire iritziz, herri baten kultura eta ohiturak ezagutzera emango direlako eta ahalik eta zehatzen egiten saiatu behar delako. Eta bertako jendeak emakumeek gizonen ohiko dantzak dantzatzea erabakitzen badu —eta historian zehar horrela gertatu da Euskal Herriko hainbat tokitan—, ederto... Baina jatorrizko herriaren erabakia dela pentsatzen dut, eta ez dantza taldeena.

Beste alde batetik, beste arrisku bat ikusten dut: dantza taldeetan mutil gutxi daude normalean, eta euren dantzak neskek egiten hasten badira, mutilen kopurua ez handitzea gerta daiteke...

Eta zergatik daude hain mutil gutxi, zure ustez?

Batzuek ez dutelako interesik eta beste batzuek dantzatzea nesken kontua dela pentsatzen dutelako... Eta gurasoek ez badute laguntzen, mutilek ideia hori izango dute betiko. Horrezaz gainera, futbolearen edota saskibaloian aritzea nahiago dute... Loiun ez dago eskolarik, eta herriko gazteak ez dituzu futbolearen elkarrekin ikusiko, eskolako lagunekin egiten dutelako... Hori kontuan hartuta, gaztetxoan arteko harremana estuagoa izatea dugu elkartearen helburuetariko bat. Eta, noski, denboraren poderioz eta nahi badute, dantza taldearen ardura eurek har dezatela.

Taldearekin jarraituz, aurrera egiteko laguntzarik?

Dirulaguntza jasotzen dugu Udaletik, eta bazkideok kuota bat ordaintzen dugu. Horrezaz gainera, bestelako laguntza jasotzen dugu noizbeinka: kamisetak, txapelak, ura...

Beste alde batetik, gurekin dabilzan txistularien lana aipatu nahiko nuke, eurak barik ipurdi agerian egongo ginateke eta.

Horrela, bada, talde askok arazoak dituzte txistulariak topatzeko, ikasi arren ez baitira dantza taldeetan sartzen.

Eta elkartearen helburuak?

Aurten taldearentzako arropa egitea pentsatu dugu; eta dantzari dagokionez, dantzen errepertorio bat prestatzen gabiltza neska eta mutiltxoek Txorierriko alardeetan parte hartu ahal izateko. Horrezaz gainera, Bizkaiko Dantzari Egunean egon nahi dugu, baita herrian Lantzeko Inauteriak antzeztu ere.

Ekainaren 29an, herriko jaietan hain zuzen ere, dantzen agerraldia eskaini zenuten lehenengo aldiz, zelan?

Oso pozik irten ginen. Honetan urte asko daramatzat, eta badakit entseguak egiteko orduan umeak nahiko alferriak direla, baina tentsiopean dena ematen dutela ere bai. Eta egun horretan dena eman zuten. Gainera, plaza jendez gainezka zegoen, eta oso ondo atera zen dena.

Jende oso gazteak osatzen du taldea, baina hala ere, nagusiek ere badute lekua zuenean...

Bai, nahi duenak har dezake parte taldean. Loiun aspaldiko dantzariak ditugu —batzuk nahiko onak, gainera—, eta jaietan elkarrekin zerbait egiten saiatu ginen. Baina, batzuen nagia zela, beste batzuen lotsa zela... ez genuen ezer egin azkenean. Lantzeko Inauterien antzezpenerako beste saiakera bat egiteko asmoa daukagu. Guztion artean talde majoa sortuko ahal dugu!

Etorkizunerako planik?

Gero eta ume gehiago erakarri, taldea finkatu eta ahalik eta urrunen ailegatu nahi dugu. Momentu honetan potentzial handia daukagu herrian: ume pilo bat eta jende asko lan egiteko gogoarekin. Proiektua aurrera ateratzeko une ona da.

Josefina, baserriko kultura osasunaren zerbitzuan

Morgan jaio eta Larrabetzuko Manuene baserrira ezkondu ostean, erretiratu arte, bizi izaten nahiz lanean, bertan emon ditu azken 40 urteak. Sukaldari trebea, ortulari iaioa eta antzinako sendakuntzan aritua dogu Josefina Oregi. Bere jakituriak, bere kemenak eta bizitzaren aurrean daukan jarrera alai eta baikorrak txunditu egin gaitu.

Antzinako sendakuntzan aditua.

Euskal Herriko bedarren bidezko antzinako sendakuntza oso oparo eta zabala zan. Geroago elizaren beldurra eta medikuntza modernoaren etorrera dirala eta asko galdu zan. Halan be, zorionez, baserri inguruetan mantendu egin da belaunaldiz belaunaldi, eta kasu gehienetan emakumeen eskuetan gelditu jaku jakintza milurteko hau. Eta ez dogu zertan harritu, zeren kontuan hartu behar dogun antzinako euskal zibilizazioan emakumearen esku egozala jainkoekiko harremana eta medikuntza bera be.

Gaur egun, Josefina Oregi dogu medikuntza hori praktikan jartzen dabenetako bat.

Zantiratuaz.

Artikulazioen bihurturak sendatzeko, Josefinak basoko bedar jakin batzuk hartu, olio epeletan ipini eta artikulazioan egun bat itxi ondoren bake santua ekarriko deutso gure minari. Baina ez bakarrik pertsonoi, barre artean kontatu deusku astoei zein txakurrei be egin deusela eta baita sendatu be.

Zantiratuaz ganera, Josefinak hainbat erremedio daukaz apuntatuta: gultzurru-neko harrien kontra ur sulfurosoa edan behar da –Artea herrian topau geinke ur hori–, garatxoak kentzeko txarrien urdail-azalagaz igurtzi eta desagertu egiten dira; erleen ziztaden aurka berakatzaz eta beste hiru bedarren igurtziaz sendatzen dau, katarroen kontrako enplastuak egin izan ditu... Milaka erremedio ei dagoz.

Manuene

Baina aitatutako guztiaz ganera, Josefinak Manuene dau gustukoen. Izan be, izen bereko baserrian kokatuta dagoen drogazaleen errekupeazio zentroan erretiratu arteko azken hogeitau urteak emon ditu. Eta bertan izan da sukaldari, soloko arduradun eta gaixo guztien amama, inork baino hobeto aholkuak emoten zituana, bere zuhurtzia eta alaitasunagaz gazteei ezin hobeto laguntzen deusena eta, iturri guztietatik jakin ahal izan dogunez, paziente guztiek errespetatu eta maite ebena.

Paseoa

Larrabetzu uria itxi, Morgarako bidea hartu eta zubia pasatu bezain laster



eskumatara jo. Hortxe ekingo deusagu Manuenerako bideari eta, obratan dabil-tzanez gero, agian zorte apur bategaz, bihurturaren bat izango dogu orkatilan. Aitzakia ezin hobea Josefinari bisita bat egiteko; eta ez larritu, Josefinak bihurtura bat baino gehiago merezi dau eta!

Windows XPko Service Pack 2 merkatuan

Testua: Alberto Legarreta

Microsoft enpresak Windows XPko Service Pack 2 barria atara du orain dela gutxi.

Horrelako partxeak berrikuntzak sartu eta ondo ez dabiltzan gauzak konpontzeko asmoz egiten dira. Horrela, bada, Service Pack 2gaz XPren segurtasuna indartzea du helburu Microsoftek, beti Internetera bideratuta eta azken birus zein mehatxuak kontuan hartuta (POP-UPS, spyware...).

SP2ren aurrerapenak:

- Segurtasunaren konfigurazioa sendagoa
- Windows Firewallen hobekuntza
- Memoriaren babesak
- Artxibo erantsiaren erabilera
- Internet Exploreren hobekuntzak segurtasunaren aldetik
- Pop-upsen agertzeak zarratu

Software hori soilik legezeko XP batean instalatuko da, eta bide honetan, softwareak legezekoak diren ala ez jakiteko kontrol gogorrek egiten dabiltzala aipatzekoa da.

SP2 eraginkorra da momentuz; hala ere, denbora gutxi daroa merkatuan eta, egia esan, beti agertzen dira segurtasun zuloak eta arazoak azken momentuan. Izatez, lehenengo problemak agertu dira programa batzukaz jadanik. Hori dela eta, instalatu baino lehen begiratu nuke Interneten zelango arazoak dagoen. Helbide honek, adibidez, kontsultatuko nituzke:

<http://www.desarrolloweb.com/articulos/1603.php>

<http://www.shellsec.net/noticias.php?num=471>

http://www.geomundos.com/sociedad/chispi_fox-terrier/documentos.asp?id=546

Interneten hainbat iritzi dago SP2 ren gainean: onak eta txarrak. Dena dela, partxeak hainbat hobekuntza ekarri badi-tu ere, beste programa batzurekin dituen arazoak atzera ematen dute instalatzeko orduan.

Hona hemen helbide interesgarriak SP2ri buruz:

<http://www.vsantivirus.com/13-09-04.htm>

<http://www.microsoft.com/spain/seguridad/content/pc/>

http://www.computeridea.net/Actualidad/Noticias/Inform%C3%A1tica_personal/Windows/20040809001

http://www.zonavirus.com/Detalle_Noticia.asp?noticia=471

Bidali zure iradokizun edo zalantzak hurrengo helbide elektronikora: traktor@euskalnet.net

www.tucos.com

Interneteko serbidore honek mota askotako hainbat software-programa iza-teaz ganera, sistema operatibo ez-bardinetarako balio dau. Eta programen azken bertsioak etengabe barrizatzen deusaz erabiltzaileari.

Software eta sistema operatiboak sailkatuta dagoz, eta bilaketa egiteko auke-

rea emoten dau. Horrela, bada, programa bakoitzeko azalpen labur bat, fitxategiaren izena eta lizentzia mota, besteak beste, eskaintzen dauz bilaketa egiten dan bakotxean. Halaber, programak kalifikatzen dauz, behiak emonez.

Tucos sebidorea erraza da erabiltzeko orduan; pantailak berak gidatuko zaitu nahi dozun programa topatu arte. Ganera, hainbat mirror agertzen da, bila-

keta arinagoa eginez.

1999. urteko urtarrilean hackeatu baeben ere, serbidoreak ez dau bere arrakasta galdu, eta Interneten gehien erabiltzen diranetakoa da.



Alkate eta erregimentuaren hautaketa Larrabetzuko urian

Juan infanteak emon eban “Uri ituna” Larrabetzun uria (edo aparteko legepeko eremua) sortzeko, Bizkaiko Jauna zalarik. Gaztelako errege izan zan urte batzuk geroago, eta harrezkero Juan I. izenez ezagutzen dogu.

Bizkaiko Jauna Bartolome deunaren egunean jaioa zan, eta urtero alkate eta erregimentuaren izendapena Bartolo deuna egun berean egiteko agindua emon eban “uri itunean”. Hemeretzigarren gizaldiaren hasieran holan egiten jarraitzen eben Larrabetzuarrek.

Alkate hautaketa, 1642. urtea

Uriko kontu liburuetan agertzen dan bezela jakinaraziko dogu nola izendatzen ziran alkatea eta erregimentua antxina. Urte honetan be Errebalean (gaur egun Askatasun enparantza) egin zan, hainbat biderrez egin zan moduan.

“Bartolome deunaren egunean, eguerdi osteko ordu bietan, Gallartzatar Errodrigo Martinez Uriko eskribauaren (notarioa) aurrean, iazko agintaldiko alkatea, errejimendua eta beste auzokideak bertan batu eta Domingo Sarrikoleatarra hautatu eben, berarengan kargurako baldintza guztiak beteten ebazalako. Gero, hiru hautatzaileek, hau da, iazko “errejido-re” biek eta “fiel”ak, bakotxak bere txartel-txoa sartu eban fieltrozko kapela baltz baten barruan eta, nahastu ondoren, mutiko batek atara eban lehenengo txartel-txoa, non esaten eban Joan Usunsolotarrak alkatetzat Herkinigotarrak izendatzen ebala, eta bigarren alkate izendatua izan zan. Jarraian beste txartel-txoa bat atara eban, non Ugaldetar Gabrieleke Lezamatar Pedrok esan nahi dot (eskribaua erratu egin zan) Agirregoitiatar Joan alkatetzat izendatzen dau esaten eban (baina Alkatea jadanik izendatua

zanez, hau erregidore moduan geldituko zan); gero, hirugarrena atara ebanean, barriri Usunsolotar Joaneke sartutako beste txartel bat atarako dau mutiko gazteak (Hemen esan beharra dago lehenengo eta bigarren txartelak ataratakoan beste bana sartzeko aukera eukiela izendatzaileek, bost hautatu behar ziralakon, eta hautatzaileek hiru baino ez ziralako) non Ugaldetar Gabriel izendatzen zan “Sindiku” “Fiel” eta “Prokuradore Orokor” bezala, bigarren errejidore izendapenez gelditu zan (hau da, laugarren txartela ataratakoan “Fiel”a suertatu behar zan) laugarren txartelak Lezamatar Pedrok Elexagatar Pedro errejidore bezala izendatzen dau esaten eban eta “Fiel”a izendatua izan zan. Azkenez, bosgarrenez ateratako txartelak Joan Usunsolok Amarikatar Joan Perez “Fiela” izendatzen eban, eta ospitaleko maiordomo suertatu zan. (Ikusten dogunez, Usunsolotarrak hirugarren txartela sartzeko aukera izan eban bere bigarren txartela be besteek baino lehenago atara ebalako. Antza, ezin zan kapela barruan txartel bakarria gelditu, eta horregatik hautatzailearen txartela ateratakoan beste bat sartzeko aukera egoan). Gero, iazko alkate izandako Joan Perez Burgoatarrak hautatu bakotxari bere zin



Errebale, gaur Askatasun enparantza

egitea hartu eutsan, ofizioa zintzo eta inolako grina barik beteko ebala aginduz eta bakotxak bere izenagaz sinatu eban “

Goiko lerrootan agertzen dan legez, Domingo Sarrikoleatarra 1642. urtean “aho batez” hautatua izan zala esan beharra dago. Holan gertatzen zan noizbehinka, larrabetzuar ospetsu bat Alkate izateko prest egoanean. Dirudienez, uriari zein gizon ospetsuari komeni jaken.

Alkate Hautatua (aho batez izendatua) = Domingo Sarrikoleatarra
Bigarren Alkatea (hautesleek izendatua) = Martin Herkinigotarra (Erkinkotarra)
1. Errejidorea (gaur zinegotzia) = Joan Agirregoitiatarra
2. Errejidorea = Gabriel Ugaldetarra
Fiel Prokuradorea ... (diruzaina) = Pedro Elexagatarra
Maiordomoa (Uriaren ospitalekoa) = Joan Perez Amarikatarra

Testua eta argazkia: Sabin Arana

Atenas, azken muga



Samuelek abuztuan bidaia bat egitea proposatu zidanean, ez nuen bitan pentsatu. Hiru egunetan gutxi gorabeherako ibilbidea marraztu, eta bi hegaldi erreserbatu genituen: lehena, abuztuaren 5ean Bilbotik Milanera; bigarrena, abuztuaren 25ean Atenasetik Amsterdamera. Tartean egingo genuena ez zegoen oso argi...

Bizikleta garraiotzat eta kanpin-denda etxetzat hartuz, ekin genion Italiako iparraldea gurutzatzeari lehendabizi. Entrenatuta egon ez arren, ibilbide laua zelako egun guztia eman ahal izaten genuen bizikleta gainean. Veneziaara heltea zen gure asmoa, han deskantsua hartzeko, baina Verona, Vicenza eta Padua ere interesgarriak iruditzen zitzaizkigun. Kanalez jositako hiria ikusteko egun bat hartu eta gero. Kroaziarako bideari ekin genion. Trieste italiar hirira heldu bezain laster hasi ginen maldan gora eta behera. Bukatua zen lautada, zain genituen Balkaniar mendiak.

Barnealdetik gogorregia eta luzeegia izango zelakoan, Kroaziar kostatik aurrera egitea zen, gure ustez, egokiena. Hegoaldera gindoazela, paisaia miresgarria ezker-eskuinera: ezkerrean, harrizko mendi gris erraldoiak; eskumara begiratzuz gero, ur gardenezko Adriatiko itsasoa eta



kolore, forma eta tamaina guztietako irlaz beteriko kostaldea. Abuztuaren 18an, Split hirira heldu ginen, euskaldun piloarekin egin genuen topo. Bertan hartu genuen Greziara abiatzeko erabakia. Biderik laburrena, eta agian merkeena, itsasoz zen: Splitetik Anconara (Italia) eta Anconatik Patrara (Peloponeso, Grezia).

Bi egun geroago Grezian ginen. Bizikletak alde batera utzi eta olinpiadetan murgilduta zegoen Atenas hiria eta Naxos irla ezagutzen eman genuen geratzen zitzaigun astea. Eguna heldu zitzaigun

Amsterdamera hegan egiteko. Han egun bi igaro ostean Bilborako autobusa hartu genuen.

Bidaian zehar gizakiak egindako hainbat gauza miresgarri ikusteko aukera izan dut: Venezia, Paduako Santa Giustina basiliza, Kroaziako Trogir Erdi Aroko hiria, Atenasko Akropolia... Baina ezin izango dut inoiz ahaztu eguzkia Adriatiko itsasotik irteten.

Testua eta argazkia: Beñat Aiertza

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Pistoa

Osagaiak (4 pertsonentzat)

kinpula bat
4 piper berde
tomate bat
kalabazin bat
arrautza bat
oliba orioa
gatza

Prestatzeko era

Kinpulea, piperra, tomatea eta kalabazina zuritu, danak txiki-txiki egin eta kazuela baten ipini. Bota 4 koilarakada orio eta bigundu daiteela. Hau dana ondo bigunduta dagoenean, arrautza batidu eta nahastau dana. Gatza egin norbere gustura... eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Perretxiko eta ganbez betetako hostorea saltsa amerikarrarekin

Osagaiak (6 lagunentzat)

Hostore-xafla bat izoztuta

Betea egiteko:

300 g. perretxiko
300 g. ganba
litro 1 esne
50 g. irina
Kipula erdia, olioia eta gatza

Saltsa egiteko:

Porru bat, azenario bi, baratxuri atal bi
kipula bat, tomate heldu bat, ganben
buruak eta azalak, piperrautsa (geza),
irina, koñaka, olioia eta gatza

Prestatzeko era:

Perretxikoak, ganbak eta kipula txikitu,
eta oliotan potxatuko ditugu. Irina bota

eta, desegiten denean, esnea botako
diogu. Dena maneatu, eta irakingo dugu
itsaspen egokia lortu arte. Sutatik kendu
eta hozten utziko dugu.

Saltsa egiteko osagai guztiak (porrua,
azenarioak, kipula...) potxatu eta koñaka-
rekin flanbeatuko ditugu. Ondoren, irina
(50g.) eta piperrautsa (geza) gehituko
ditugu. Ura bota, eta irakiten utziko dugu.
Irakin ostean, saltsa irabiatu eta txinotik
iraziko dugu.

Beste alde batetik, hostore-xafla labera
(200°) sartuko dugu 10 minututan.

Aurkezteko era:

Hostore-xafla perretxiko eta ganbazko
orez bete, eta plater batean jarriko dugu.

Saltsa amerikarra gainetik botako diogu.
Nahi izanez gero, arroza edota baratxu-
riak jar ditzakegu goarnizio moduan.



Balguerri jatetxea Zamudion.

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Denboraren izerdia

Xabier Montoia

Galtzontziloak autobusean zintzilik

Aritz Gorrotxategi

Eulien bazka

Hasier Etxeberria

Romain zen bere izena

Joxean Agirre

Esan gabe neukana

Aqurtzane Juanena Alustiza

DISKOAK.

Didjeridu hotsak

Iban Nikolai

Somo trop

Papa Bemba

Oyaya

Angélique Kidjo



DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Jakina da Txorierriko “Uri” bakarra Larrabetzukoa dela, beraz “kaletar” bakarrak bertan zeuden. Azken urteotan kaletar gehiago hasi dira sortzen beste herrietan. Herri batzuetakoak “kalea” deitzea ez dakigun zileegia den arren, nongoak dira kale hauek?

**LARRABETZU 1**

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA **3**

SONDIKA 4

LEZAMA **5****LOIU 6**

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Ixorreiri? Emaizak: A4, B2, C1, D7, E5, F6, G3



Antzerkia eta filmak

Zamudio

Doce en casa, urriak 1; *Un delantero muy peludo*, urriak 8; *Tesoro de las Amazonas*, urriak 15; *Niñera a la fuerza*, urriak 22; *Peter Pan*, urriak 29. Dorretxean, 19:30ean

Lezama

Mr Frack, **kale antzerkia**. Urriak 1, 19:30ean, plazan

Larrabetzu

Ipuin kontalaria. Urriak 2

Azokak

Loiu

Ganadu azoka. Urriak 10 eta 17

Lezama

Uzta eguna. Urriak 3, plazan

Erakusketak

Zamudio

Mikel Valverderen "Irudiak". Urriaren 9tik 22ra bitartean. Dorretxean

Ikastaroak

Zamudio

Aerobica... Udal kiroldegian

Eskulangintza, marrazkigintza... Urriaren

Odolosteei buruzko ikastaroa, azaroaren 24tik 26ra bitartean. Galdetu Mendikoi eskolan eta Zamudioko Udaletxean

Lezama

Guraso eskola. Urriaren 21etik aurrera. Galdetu Mankomunitatean eta liburutegian

Larrabetzu

Sukaldaritza eta memoria indartzeko ikastaroa. Galdetu liburutegian

Irteerak

Zamudio

Kilometroak (Orio). Urriak 3

Yo, Claudio antzezlan. Urriak 4, 20:00etan, Arriaga antzokian

Nafarroa oinez (Lizarra). Urriak 17

Lezama

Lagunas de Ruidera (Albacete). Urriaren 16tik 21era bitartean

Nafarroa oinez. Urriak 17

Saya-Besaya (Kantabria). Urriaren 30etik azaroaren 1era bitartean.

Kirola

Lezama

Eskualdeko pilota txapelketa. Urriaren 15etik aurrera bariku guztietan, pilotalekuan, 20:00etan

Jaiak

Derio

Mikel Deuna, urriaren 3a arte. Pilota partidak, Betagarri, herri poteoa...

Kontzertuak

Loiu

Metal jaialdia. Urriak 2, 20:00etan, pilotalekuan

Bestelakoak

Lezama

Umeen irakurtzeko zaletasuna piztea. Urriak 15, 18:45ean, Lezamako liburutegian

Erreka eguna. Urriak 17, 11:00etan, irtengo da plazatik